



# Ekonomia solidarioa eta tokiko politika publikoak. Euskal Herria



**reas**  
**euskadi**

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea  
red de economía alternativa y solidaria



Dokumentu hau **reas** Euskadiko “Ekonomia Sozial eta Solidario baterako Tokiko Politika Publikoak” proiektuaren barruan kokatzen da. Zenbait jardueraren bitartez (ikerketa, prestakuntza, herritarrak sentikortzea, hedapena eta erakundeekiko elkarrizketa), Ekonomia Sozial eta Solidarioko printzipioetan eta praktiketan oinarritutako politika publikoak identifikatu nahi dira, bai eta lurraldeen eraldaketaren zerbitzurako tresnak garatu ere, ekitate-, iraunkortasun- eta solidaritate-irizpideetan oinarrituta.

Finantzatzen dute:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Venezuela plaza 1, 2 Ezk.-Ezk  
48001 Bilbao  
reaseuskadi@reaseuskadi.net  
[www.economiasolidaria.org/reaseuskadi](http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi)



Aitorpena-Ez komertziala-3.0 lizentzia beraren pean partekatzea Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago.

Askatasun osoz kopia, banatu eta publikoki jakinaraz daiteke, baldin eta egiletza aitortzen bada eta helburu komertziala- rako erabiltzen ez ba da. Hori aldatu, eraldatu edo eratorritako obrarik sortzen bada, lizentzia honen pean soilik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa. Lizentzia osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

# [aurkibidea]

Sarrera	5
Finantza etiko eta alternatiboak	6
Subiranotasun energetikoa. Energia berriztagarriak	8
Ekonomiaren desmonetizazioa	11
Elikadura-subiranotasuna eta landa-garapena	13
Lurraren eta ingurumenaren zaintza	16
Kudeaketa publikoa	20
Tokiko garapen alternatiboa eta ekintzaitza Ekonomia Sozial eta Solidarioan	24
Erosketa Publiko Sozialki Arduratsua	26
1. Eranskina. Ekonomia Sozial eta Solidario baterako tokiko Politika Publikoak	36





## .....• Sarrera

Toki-mailan politika publikoak sustatzea da Ekonomia Sozial eta Solidarioa –aurrerantzean, ESS-izeneko mugimenduaren lan-esparruetako bat. Ekonomia eraldatzea da gure helburua, eta, horretarako, lurralde-mailako esku-hartzea funtsezkoa dela deritzogu. Hori horrela, esku-hartze horretan erakunde publikoek duten egitekoa guztiz esanguratsua izan daiteke, herritarrengandik gertuen dauden erakunde publikoak baitira, eta herritarrentzako funtsezkoak diren zerbitzu eta alor ugaritan eskumenak baitituzte. Era berean, demokrazia parte-hartzaile eta hurbilekoa garatzeko espazio ezin hobekak dira. Horren bidez, izan ere, bestelako jarduera ekonomikoak garatu daitezke, erakundeetara zuzenduriko kudeaketa-eredu berriak eraikitzeko, bertakoen giza garapenerako proposamen berriak sustatzeko, eta, oro har, norbanakoak nahiz bizitzaren iraunkortasuna oinarri izango dituzten lurralde-estrategiak garatzen laguntzeko.

Jarraian aurkezten dugun dokumentua mapaketa baten emaitza da, jarduera alternatiboak eta ESS jarduerak sustatzeko helburuarekin toki-mailan diseinatu eta abiarazi diren politika publikoak aztertzen dituenak. Mapaketa hori “*Ekonomia sozial eta solidarioa lortzeko tokiko politika publikoak*” proiektuaren baitan egin zen, eta Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa jaso zuen, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez (2015), bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena ere (2014).

Mapaketaren eremu geografikoa, batik bat, EAE izan da; hala ere, Nafarroako eta Iparraldeko zenbait esperientzia aipagarri ere barne hartu ditugu. Beraz, epealdi jakin bateko argazki finkoa islatzen du (2015eko otsailetik 2016ko ekainera), epe tarte horretan egin baitzen aipatutako esperientziei buruzko informazio-bilketa. Informazioa bilatzeko orduan iturri ugari erabili badira ere, hauek dira mapaketa osatzeko kontuan hartu diren hiru iturri nagusiak:

- Bilketa-fitxa: 2015eko otsailean fitxa bat bidali genien, posta elektronikoz, EAEn egun dauden 248 udal, 28 mankomunitate eta 22 Tokiko Garapen Agentziei. Fitxa bera bidali zitzaientzen, era berean, REAS Euskadi osatzen duten eta EAeko hiru lurralde historikoetan barne hartuta dauden 68 erakundeetara. Dokumentu honen 1. eranskinean dago jasota fitxa hori.
- Bibliografia eta bigarren mailako iturriak: ESS sustatzea helburu duten politika publikoetara buruzko erreferentzia bibliografikoak aztertu ziren, bai eta Interneteko dokumentazio ugari ere.
- Barne-tailerra REAS Euskadi osatzen duten erakundeekin, Gipuzkoako erakundeekin hain zuzen ere, lurralde horretan egindako mapaketa egiaztatzeko.

Erosketa Publiko Sozialki Arduratsua –EPSA– oinarri duten esperientziak kontuan izan gabe, bestelako garapen ekonomikoak sustatu eta indartzen dituzten 279 ekimen inguru identifikatu ditugu, EAEn eta Nafarroan, batik bat. Horien artean, badira ekimen xumeak, bai eta izaera integralagoa dutenak ere.

Jakin badakigu, tokiko ekimen politikoetatik abiatuta, eredu sozio-ekonomikoa eraldatzea helburu duten proposamen edota ekimen zehatz gehiago ere badaudela. Badakigu, halaber, guk hemen nabarmendu ditugun ekimenen artean badirela ibilbide kritikagarria izan dutenak ere. Hemen aurkezten dizkizuegun esperientzia batzuek ez dute uste bezain ondo funtzionatu, eta, beste batzuk, ordea, bertan behera edota behar bezala finkatzeko beharko luketen laguntzarik gabe geratu dira. Hala ere, interesgarria deritzogu proiektua garatu ahala zentzu horretan identifikatu

ditugun tokiko politika publikoak ere aipatzea, baliagarriak izan baitaitezke ekonomia solidarioan oinarritutako balio eta printzipioak aplikatuz euren lurraldearen eraldaketa sustatu nahi duten tokiko erakundeentzat.

## .....• **Finantza etiko eta alternatiboak**

Printzipio etiko eta demokratikoetan oinarritutako finantza-alternatibak dira ekonomia solidarioaren baitan aurki ditzakegun antolaketa-errealitate aipagarrienetakoak. Hurrengo urteei begira, hazkunde izugarria izan dezakete, baldin eta eskura dituzten aukerak aprobetxatzen badituzte eta aurrez aurre dituzten erronkak arrakastaz gainditzeko gai badira; hau da, geroz eta handiagoa den eskariari erantzuna ematea, bai kreditua eskuratzeari eta aurrezteari dagokionez, bai banku-eragiketei dagokionez.

Gure ingurune hurbilean, finantza etikoak gauzatzeko aukera bat baino gehiago daude Ekonomia Solidarioaren esparruan; horien artean, hauek dira aipagarrienak:

—• **Coop57** finantza-zerbitzu etiko eta solidarioak eskaintzen dituen kooperatiba da. Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako proiektuak diruz laguntzea du helburu, finantza-bitartekaritzaren bidez. Hau da, gizarte zibilaren aurrezkiak bildu eta erakartzea, ekonomia sozial eta solidarioko finantza-erakundeetara bideratzeko, baldin eta, oro har, enplegua, kooperatibismoa zein elkartegintza, eta printzipio etiko eta solidarioetan oinarritutako iraukortasuna sustatzen badituzte. Duela urtebete pasatxoz geroztik kreditu-kooperatiba honek gurean ere badu presentzia, Coop57 Euskal Herria delakoaren bidez, hain zuzen ere.

—• **CAES Aseguru etiko eta solidarioak** (aseguru etiko eta solidarioako lankidetzak) Serves eta Arc aseguru-etxeen arteko lankidetzak-proiektua da, eta ekonomia sozial eta solidarioan aseguru etiko nahiz solidarioak sustatu eta garatzea du helburu. Kooperatibismoaren, finantza etikoen eta merkatu sozialaren esparru desberdinetan parte hartzen du CAESek.

—• **FIARE banku etikoa** finantza etikoa oinarri duten bi proiekturen arteko batasunaren ondorioz sortu zen: Banca Popolare Ética, 1999az geroztik Italian lanean diharduen banku kooperatiboa, eta Fiare, Espainian 2005. urteaz geroztik diharduena. Bien helburua da gizarte-eraldaketaren zerbitzura dagoen baliabidea izatea. Horretarako, ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatu, eta finantza-bitartekaritzaren kultura sustatzen dute, honakoak bezalako printzipioak baliatuz: gardentasuna, parte-hartzea, demokrazia eta kreditu bat eskuratzeko eskubidea.

Atal honetan, Banca Ética Fiare sustatzeko asmoz EAEko administrazio publikoek gauzatu dituzten ekimenak aipatuko ditugu. Halaber, sustapena egiteko bi modu identifikatu ditugu, tokiko politika publikoetako ekonomia solidarioari dagokion definizioa abiapuntutzat hartuta:

### 1. Kapital sozialerako ekarpenak finantza etikoko lankidetzak-proiektuetan.

Banca Ética Fiareren kasuan, zehazki, tokiko 27 administrazioek egin dituzte ekarpenak haren kapital sozialean (1 Araban, 1 Bizkaietan, 18 Gipuzkoan eta 7 Nafarroan), bai eta Udalbiltzak ere (2016ko maiatzeko datuak).

Banca Ética FIAREren tokiko erakunde sozialak	
Araba	Zigoitia
Bizkaia	Durango
Gipuzkoa	Aizarnazabal, Anoeta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia-San Sebastián, Errenteria, Getaria, Hernani, Oñati, Ordizia, Tolosa, Usurbil, Urretxu, Billabona, Zestoa, Zarautz
Navarra	Antsoain, Berriozar, Burlata, Lizasoko kontzejua, Uharte, Orkoieta eta Aurrabiasa

2. Finantza etikoei laguntza emateko bigarren multzoa tokiko ekonomia garatzeko bide alternatiboak sustatzearekin lotutakoa da, hala nola, **finantzaketa etiko eta alternatiborako zirkuituen sorkuntza**, finantza etikoak baliatuz garaturiko proiektuen garapena edota finantzaketa etikodun baliabideen bidez lagunduriko tokiko proiektuen garapena, besteak beste.

Atal honetan, esperientzia-mota desberdinak aurki ditzakegu:

a) **Banca Ética Fiare erakundearen kontua zabalik izanik bertan eragiketarako egiten dituzten udalerririak.** Banca Ética Fiare erakundearen kontu korrontea daukaten udalerririak, edota zenbait kudeaketa Banca Ética bidez burutzen dituztenak, esaterako, Tolosako kiroldegia ordainketa, 2015ean banku etiko eta solidarioko kontu baten bidez egiten zena.

b) **Proiektuen finantzaketa alternatiboa: Udalbiltza** partzuergoaren Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak lankidetzaren hitzarmenak sinatu ditu Banca Ética Fiare eta Koop57 erakundeekin. Hitzarmen horietan, kapital soziala harpidetzeko eta partzuergoko udalen artean finantza etikoak hedatu eta sustatzeko konpromisoa hartu du bere gain. Era berean, proiektu biak dira zirkuitu ekonomiko alternatiboak sortzearen aldekoak:

- **Pirinioetan lan eta bizi 2014-2015.** Fiare Fundazioak parte hartzen du bertan, eta finantzaketa eskaintzen die mikro-ekintzei. Laguntza emateko hiru programa barne hartzen ditu: *Eragin*, jarduera ekonomiko berriak sustatzeko programa; *Elgarrekin*, sarean lan egiteko programa, eta *"Garapen Soziala"*, proiektu sozialak aktibatzeko programa. Aipatutako parte-hartze hori hiru egiteko zehatzen bidez gauzatzen da: FIARE Fundazioak parte-hartzea bermatzen die 2014ko eta 2015eko deialdietan aurkezturiko proiektuetako azterlan, jarraipen eta ebaluaziorako talde teknikoaren arabera gaitasun nahikoa duten pertsona guztiei. Deialdi guztietan, eta, proiektuen lehen fasea ebaluatu ondoren, inbertsioetarako finantzaketa beharra duten proiektu sozialen bideragarritasun ekonomiko eta sozialari buruzko azterlana egiteko proposamena Banca Popolare Etica Cooperativa de Crédito erakundeari egiteko konpromisoa hartuko du.

- **Mailegu solidarioak energia berriztagarrien sektorean (2015),** Koop57 erakundearen parte-hartzearekin. Deialdi honek energia berriztagarrien sektorean ekonomia sozial eta solidarioa garatzeko proiektuak finantzatzeko du helburu, subiranotasun energetikoa sustatu ahal izateko garapenerako eredu gisa. Ekonomia sozial eta solidarioaren sektorean diharduten erakundeak dira onuradunak; efizientzia energetikoan edota energia berriztagarrien bidez bero nahiz elektrizitatearen ekoizpenean oinarritutako proiektuen bat abiarazteko asmoa duten erakundeak, alegia.

c) **Mikro-kredituak gizarte/finantza bazterketa egoeran dauden pertsonentzat: Hernaniko Udalak** lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du Fiare Proiektua Babesteko Euskal Elkartearekin, gizarte edota finantza bazterketa egoeran dauden pertsonen finantza-laguntza emateko, premia sozialeko egoerarako mikro-kredituak eskaintzen dituen fondo baten bidez. Mailegu-kontratu bakoitzari (interesik gabe eskaintzen dira) hezkuntzarekin lotutako ekintzak lotu ahalko zaizkio; hala nola, finantza arloko prestakuntza saioak, nahitaezko aurrezkia... edota antzeko beste batzuk.

## .....• **Subiranotasun energetikoa. Energia berriztagarria**

Subiranotasun energetikoa honela definienez: norbanakoek, erkidegoek eta herriek, kontzienteki, euren kabuz erabakiak hartzeko duten eskubidea, energia sortu, banatu eta kontsumitzeari dagokionez, erabaki horiek onuragarriak direnean inguruabar ekologiko, sozial, ekonomiko eta kulturalentzat, eta hirugarrenei kalterik egiten ez zaienean, betiere. Norbanako eta herri bakoitzak bere buruarentzako zein bere taldearentzako behar beste energia izateko eskubidea dauka, bai kopuruari dagokionez, bai energia-motari dagokionez; era berean, energia hori mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak edukitzeko eskubidea ere badauka, ingurumenean, gizartean edota ekonomian eragin kaltegarriarik sortzen ez denean, betiere.

Gure inguruan, eta ekonomia solidarioari dagokionez, energia berriztagarriak sortu eta merkaturatzearen esparruan diharduten irabazi asmorik gabeko bi kooperatiba ditugu, subiranotasun energetikoaren printzipioak errespetatuz lan egiten dutenak: Energia Gara eta Goiener.

Arlo honetan tokiko erakunde publikoek egin dituzten zenbait jarduera aipatuko ditugu:

- 1. Energia berriztagarria merkaturatzeko lankidetzeta proiektuen batean bazkide-laguntzailea izatea:** Ekonomia sozial eta solidarioaren baitan badira eredu energetikoaren alde egiten duten ekimenak, %100ean jatorri berriztagarria duen elektrizitate-eskaria areagotuz, eta sensibilizazio eta informazio ekintzen bidez kontsumo arduratsua sustatuz. Euskal Herriaren kasuan, irabazi asmorik gabeko Goiener Kooperatiba da energia-eredu hori aldatzearen alde egiten duen erakundeetako bat; hori horrela, energia elektriko %100 berriztagarria eskaintzen die bazkideei. 2017ko otsailean 32 udal, mankomunitate eta kontzeju zeuden kooperatibaren bazkideen artean (2 Araban, 4 Bizkaian, 13 Gipuzkoan eta 13 Nafarroan).

Goiener kooperatibaren bazkide-laguntzaileak diren tokiko erakundeak	
Araba	Asparrena eta Manzanosko Administrazio Batzordea
Bizkaia	Ea, Busturia, Lanestosa eta Larrabetzu
Gipuzkoa	Aduna, Alegia, Antzuola, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernani, Itsasondo, Legazpi, Orendain, Tolosa, Udalbiltza (Euskal Garapen eta Kohesio Fundoa), Usurbil
Navarra	Arruazu, Bera, Imotz, Etxalar, Garisoaingo Kontzejua, Muskitzeko Kontzejua, Etxarri Aranaz, Goizueta, Lakuntza, Leitza, Sakanako Mankomunitatea, Sartaguda, Arakilgo Harana



2. **Energia-kontsumo alternatiboa (bazkide-kontsumitzailea):** 20 dira, guztira, kooperatiba honekin elektrizitate-hornikuntza kontratatuta duten udalak (1 Araban, 3 Bizkaian, 7 Gipuzkoan eta 9 Nafarroan). Udalerri horiek erabiltzen duten energia %100 energia berriztagarrietatik datorrela bermatuta dago, beraz. Zenbait kasutan, kontratazio horrek hornikuntzaren zati bat baino ez du betetzen (Orendain eta Gabiria). Beste kasuren batean, hornikuntza lizitazio publiko bidez kontratatzen da (Zuia).

Entidades locales socias-consumidoras de Goiener	
Araba	Zuia
Nafarroa	Artea, Ea eta Busturia
Gipuzkoa	Aduna, Antzuola, Berastegi, Berrobi, Gabiria, Orendain eta Orexa
Navarra	Arruazu, Bera, Etxalar, Goizueta, Imotz, Lakuntza, Leitza, Sartaguda eta Arakilgo Harana.

Azken urteetan, ugaritu egin da kontratazio publikoko prozeduretan klausula bereziak barne hartu dituzten udalen kopurua, kontratatzen duten energia %100ean energia berriztagarrietatik datorrela bermatzeko.

3. **Subiranotasun energetikoa:** Euskal Herrian badira bestelako esperientzia batzuk ere, tokiko energia-baliabideak autosufizientzia, iraunkortasuna eta udalerriko biztanleen onura kontuan hartuz erabiltzearen alde egiten dutenak:

a) **Aguraingo Biomasa proiektua** (Araba), adibidez. Udalak energia-iturri desberdinen eta horietako bakoitzak dituen abantailen inguruko azterlana egin ostean, Biomasaren alde egin zuten. Proiektuaren helburua da berokuntzarako eta kontsumorako ur berokuntza 394 etxebizitza, bai eta Ibarra auzoko 7 udal eraikin ere. Proiektua aurrera eraman ahal izateko, 3 milioi euroko inbertsioaz gain, nahitaezkoa da bizilagunen kopuru jakin bat proiektuaren alde agertzea. Horregatik, Udalak sentsibilizazio-kanpaina handia egin, eta zenbait bilera antolatu ditu bizilagunekin, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta euren atxikipena jasotzeko.

b) **Energia mini-hidroelektrikoaren ekoizpena:**

- Oñatiko Ur Jauziak sozietateak (bertan, partaidetza dute Oñatiko Udalak %90ean eta Energiaren Euskal Erakundeak %10ean) energia elektrikoaren hornikuntza-zerbitzua monopolizatu zuen 1925ean udalerriri osorako. Ordutik, Oñargi S.L. merkataritzako enpresa arduratzen da banaketaz, eta Mercaoña S.A., berriz, merkaturatzeaz. Hiru zentral hidroelektriko dituzte: Olanar Erreka eta Urdantegietea 1915. urtetik, eta Olate, 1988az geroztik.
- Zazpiturrieta: 2004. urtean Tolosa eta Amezketako udalak, EEErekin batera, Zazpiturrietako zentrala abiarazi zuten. Zentral horrek 1.900 laguneko kontsumorako beste energia ekoizten du, gutxi gorabehera.

- Errenteriako Zentral Hidroelektrikoa: Udalaren jabetzapekoa den Ereñozuko Zentral Hidroelektrikoa ustiatzea da honen helburu soziala, bai energia elektrikoa ekoizteko, bai ekoizpen horretan beharrezkoak, egokiak nahiz lagungarriak diren jarduerak garatzeko. Errenteriako Udalarari eta Energiaren Euskal Erakundeari (EEE) dagokie partaidetza, erdibana (%50).

#### 4. Efizientzia energetikoaren aldeko kanpaina eta proiektuak:

- a) **Argitu**, Gipuzkoako Foru Aldundiak Goienarren lankidetzarekin sustatutakoa da, eta etxebizitzetan energia elektrikoa aurreztera eta energia berriztagarriak erabiltzera bideratuta dago. Kanpaina hau Tolosan, Orendainen, Azpeitian, Azkoitian, Beizaman, Errezilen eta Zestoan abiarazi da 2015ean, eta lurralde osora hedatzea du helburu. Kataluniako udalerrri batean egindako "Rubi Brilla" izeneko proiektuan oinarrituriko kanpaina da; bertan, izan ere, etxebizitzetako argi kontsumoa batez beste %18 jaitea lortu zuten. Kontsumo-datuak jasotzeko, doako gailu bat ezarri zen interesdunen etxebizitzetan. Gailu horrek Internet bidez igortzen ditu kontsumoari buruzko datuak. Tolosaren kasuan, zehazki, Tolargi enpresa publikoak kontrolatzen duen hornikuntza-sareari esker, dagoeneko instalatuta dauden kontagailu inteligenteen bidez egingo da datu-bilketa. Kontsumitzaileek Internet bidez (mugikorra, tableta, ordenagailua) egin ditzakete fakturarekin lotutako kontsultak (ulermena erraztuko dien aipamenekin), datuen konparaketak, kontsumoa murrizteko aholkuak, tarifa aldaketak, etab. Antzeko kanpainak egin dira Hernanin edota Alegian ere, eta sentsibilizazio ekintzak, bestalde, Oñatin.
- b) **Alkateen arteko ituna**. 2020. urtera begira efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera modu esanguratsuan areagotzea da honen helburua, 20-20-20 izeneko Europar Estrategiaren baitan. Halaber, CO<sub>2</sub> isurketak %20 gutxitu nahi ditu, eta, horretarako, efizientzia energetikoa %20an gehitu, eta energia-eskari osoaren %20 berriztagarrien bidez osotuko du. Hauek dira proiektuarekin bat egin duten udalerrriak: Araban, Amurrio eta Gasteiz; Bizkaian, Abanto Zierbena, Areatza, Balmaseda, Basuri, Bilbo, Güeñes, Mungia, Muskiz eta Portugalete; eta Gipuzkoan, Amezketeta, Donostia, Errenteria, Oñati, Usurbil eta Tolosa. Udalerrri horiek honako ekintzak garatzeko konpromisoa hartu dute:
  - i. Erreferentziatzko isurketa-inbentarioa egitea, energia iraunkorrerako Ekintza Planaren oinarri gisa.
  - ii. Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana aurkeztea, ituna sinatu eta urtebeteko epean.
  - iii. Udalerriko egiturak egokitzea, behar beste giza baliabide izendatuz, ezinbesteko ekintzak garatu ahal izateko.
  - iv. Gizartea mugiaraztea, planean parte hartu dezan.
  - v. Jarraipen-txostena aurkeztea, bi urterik behin gutxienez, plana onartzen denetik zenbatzen hasita.
  - vi. Europar Batzordearen Energiaren Astean parte hartzea, herritarrek zuzenean goza dezaten energiaren erabilera adimentsuago batek eskaintzen dituen aukerez eta abantailez.

## .....• **Ekonomiaren desmonetizazioa**

Ekonomia solidarioak bestelako harremanak proposatzen ditu erakundeen eta pertsonen artean. Harreman horiek, halaber, ez dute zertan erabilera legaleko monetetan oinarrituta egon. Hori horrela, aipatzekoak dira:

- 1. Moneta sozial edo alternatiboetan oinarritutako merkaturatze-zirkuituak abian jartzea.**  
Moneta sozialaren bidez harreman ekonomiko parekoagoak lortzen dira. Erakunde eta pertsona parte-hartzaileen arteko jarduera ekonomiko erreala kontuan hartuta sortu, eta horren arabera egiten da banaketa. Tokiko moneta da, interesik sortzen ez duena; beraz, moneta hori pilatzeak zentzurik ez dunenez, espekulatzeko aukerak desagertzen dira, eta errotazio-maila handia eragiten du. Horren ondorioz, barne trukeak ahalbidetzen dira. Euskal Herrian moneta sozial bat baino gehiago daude, eta horietako bakoitzak funtzionatzeko modu desberdina dauka. Mota honetako ekimenak sustatzeko eta/edo bultzatzeko, toki administrazioek sentsibilizazio-kanpainak edota proiektu pilotuak abiaraz ditzakete. Bereziki deigarria da **Oñatiko Udalak** sustaturiko "Txantxin" monetaren kasua; 2015eko urrira arte probaldian egongo da, eta dagoeneko udalerriko 90 establezimenduk egin dute bat ekimenarekin. Udaleko langileek euren nominaren %1,5 moneta honetan jasoko dute. **Tolosakoa** (Gipuzkoa) bezalako udalak merkatarri-elkarteekin elkarlanean ari dira, proiektua epe laburrean abiarazi ahal izateko. **Ogerleko** da Arabako Merkataritza Federazioak sustatu duen moneta. Berau erabiliko den udalerrietako, hau da, **Laudioko, Amurrioko eta Artziniegako** merkatarri elkarten laguntza jaso du. Udalerri horietako udalek proiektuarekin bat egin, eta txartelak banatu dituzte bertako langileen artean. Iparraldeko **euskoak** ere laguntza jasotzen du toki-administrazioen eta bestelako erakunde publikoen aldetik (gure inguruan gizarte zibilaren ekimenez sortu diren moneta sozialen artean Irungo San Marcial nabarmendu behar dugu; 2015. urtean sortu zen, udalerriko merkatarri eta ostalarien elkarteak sustatuta).
- 2. Denboraren bankuak.** Denbora jakin batez zerbitzuak elkartrukatzeko sistema da. Sistema horretan, denbora-tarte jakin bat erabiltzen da elkartruckerako unitate gisa. Harreman sozialak ez ezik, berdintasuna ere sustatzen du. Denboraren banku ugari daude, eta, zenbait kasutan, tokiko administrazioak dira banku horiek sustatu eta/edo kudeatzen dituztenak. Horren adibideak ditugu Bizkaian: Basauri (equitruke- 2012) eta Lekeitio (2009); eta Gipuzkoan: Tolosa (tik-tak-truk-2012) edota Alegia (Auzopolis).
- 3. Truke-ekimenak.** Tokiko erakundeek modu askotara lagundu ditzakete truke-ekimenak. Truke-azokak antolatzea da laguntza emateko modurik ohikoena. Hala egiten du Basaurik 2009. urteaz geroztik. Trukea zuzenean sustatzea da beste aukera bat. Hori da, hain zuzen ere, Enkarterrialdeko Landa Garapenerako Agentziak zonaldeko udalekin batera uda sasoiari antolatzen duen "Truke jaietan" kanpaina. Eskualdeko udalerrietako jaietan errepikatzen den ekimena da, eta berrerabiltzea eta birziklatzea da helburua. Interesa duen pertsona orok topagune horretara jo dezake, bere produktu eta artikuluak trukatzera, eta, horrez gain, jada erabiltzen ez dituenak saltzera. Beraz, bigarren eskuko gauzen trukea eta salmenta egiten da bertan. Antzeko beste esperientzia batzuek modu iraunkorrean ezarri nahi izan dute topagune hori; horren adibide dugu Zallako Udalak 2013an sustatu zuen "asteazken iraunkorrak" izeneko ekimena, Enkarterrialdeko Tokiko Garapen Agentziaren laguntza jaso zuena.
- 4. MERKA2SANMARCOS.** San Markos Mankomunitateak sustaturiko topagune honetan, erabilitako objektuak saldu, trukatu edota oparitu ditzakete norbanakoek. Doako zerbitzua

da, eta mankomunitatea osatzeko duten udalerrietako herritarrei zuzenduta dago: Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil. Gainera, trukeak sarean egiteko merkatua ere badu, merka2sanmarcos.org, hedapen zabalagoarekin.

**5. Elkarlaneko kontsumo-proposamenak.** Multzo honetan, esperientzia-mota bat baino gehiago barne hartzen ditugu:

a) Jabetzaren aurrean ondasunen erabilera gailentzen duten lankidetzajarduerak sustatzen dituztenak, ingurumenari onura eginez edota lurra zainduz:

i. **Bazka kolektiboak.** Nekazaritza-modu desberdinak sustatzeko, ondasun kolektiboak hobetzeko, parte-hartzea sustatzeko eta nekazaritza-eredu berri baterako urratsak emateko helburuarekin, Baztan Haranean zenbait berrikuntza egin zaizkio bazka kolektiboaren erabilerari: produktu naturalen erabilera (ongarri ekologikoa), ekoizpen ekologikoaren sustapena eta Baztango ondasun kolektiboaren balio naturalen sendotzea. 3 bazkaleku kolektibo dituzte, 1.000 hektarea inguruko luze-zabalerarekin (Baztango azalera osoaren %3 eta Nafarroaren %0,1). Guztira 120 dira bazkaleku horiek erabiltzen dituzten nekazariak, eta, halaber, horien inguruko erabakiak hartzen dituztenak. Une honetan 750 abelburuk baino gehiagok bazkatzen dute bertan. 2014. urtean bazkaleku horietan egindako hobekuntzei esker, gaur egun ugaritu egin da horien erabiltzaile kopurua.

ii. **Maskilu (2015).** Zeberioako kontserba-fabrika kolektiboa. Ekimen hau, beste batzuekin batera, Udalak sustaturiko "Nekazalgunea" Landa Garapenerako Plan Integralaren baitan sortu zen. Programa hau elikadura subiranotasunari eta landa-garapenerari buruzko atalean garatu dugu. Eraldaketa-areto honetan, denboraldiko fruta, barazki eta onddoen kontserbak egiten dira, artisau-eran, kalitate handiz eta dagokion osasun-erregistroarekin. Eskualdeko hamabost bat baserritarrek osatzen dute. Espazio honetan, edonork (autokontsumorako baratzeek, baratze komunitarioek eta ekoizleek) ontziratuta ditzake denboraldiko barazki eta frutak, urte guztian zehar. Eraldaketarako espazioa izan nahi du Maskiluk, ikuspegi baserritar eta agroekologiko batetik, eredu industrialaren aurrean.

iii. **Lurraldekar.** Gipuzkoako Foru Aldundiak abiarazitako zerbitzu honek ibilgailuen erabilera partekatua sustatu eta ahalbidetzen du. Zerbitzuaren helburua da ibilgailua eskaintzeko prest dauden pertsona eta erakundeen arteko loturak antolatu eta ahalbidetzea, ibilgailuari erabilera partekatua eman ahal izateko. Ibilgailuen erabilera partekatua antolatzeko orduan beharrezkoak diren egitekoetan orientazioa nahiz aholkularitza eskainiko da, hala nola: parte-hartzaileak bilatzerakoan, interesa erakutsi duten pertsonak elkarrekin harremanetan jartzean eta akordioak adostean, besteak beste. Horretarako baliabide eta tresna egokiak eskainiko dira. Zerbitzu hau honakoei zuzenduta dago: ibilgailurik ez duten pertsonak, ibilgailua noizean behin baino erabiltzen ez duten jabeak, edota herritarren artean sistema hau sustatzeko interesa duten erakunde publiko zein pribatuak. 2015ean proiektuari bultzada emateko sare bat sortu zen, honako udalerriez osatutakoa: Bergara, Donostia, Irun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Urretxu eta Zarautz.

iv. **Udaltruke (2012).** Enkarterrialdek sustaturiko ekimen honen helburua da Enkarterriko eta Meatzaldeko 15 udalen artean udal-ondasunak dohainik trukitzea. Enkarterriko

Landa Garapenerako Agentzia da sistemaren sortzailea, eta 2012ko uztailean jarri zuten martxan (lehendabiziko sei hilabeteetan, Udaltrukeri esker 9.000 € baino gehiago aurreztea lortu zen, artikulua trukatzearen ondorioz; udalen arteko 17 elkartruke egin ziren, eta erabiltzaile gehienek plataforma erabili zuten ordurako. *On line* dagoen sare pribatua da, eta bazkide diren 17 udaletako teknikari eta politikariei zuzenduta dago. Udalen jabetzakoak diren artikuluen katalogo bati esker (lorenzaintzakoak, obretakoak, kulturakoak, etab.), udaletako langileek ondasun horiek eska ditzakete, elkartruke moduan eta dohainik.

#### b) Elkarlaneko kontsumoaren sustapena:

i. **Tokiko kontsumo-taldeak.** Pertsona-talde honek zuzenean eta modu bateratuan erosten dizkio, ohikotasunez, elikagaiak ekoizleari. Askotariko produktuak eros daitezke modu horretara: fruta eta barazki freskoak, garbiketa-produktuak, arropa, etab. Euren artean, gutxieneko akordio ez formal bat daukate, nola antolatu jakiteko; zenbait kasutan legezko egitura izan dezakete, kooperatiba gisa, normalean. Tokiko kontsumo-taldeak ere badaude, udalek sustatuta. Esaterako, Oñatin. Beste kasu batzuetan, herritarren edota gizarte-erakundearen ekimenez sortzen dira. Hori da, esaterako, **Ereindajan** elkarrearen kasua; Debagoienako ekoizleek osaturiko elkarte honek jarduera nekazaritza ekologikoekin lotutako kontsumoa sustatzen du. Nekazaritza ekologikoko ekoizpen prozesuetan oinarritzen bada ere, bestelako alde ere egiten du, hala nola, lehenengo sektorean enplegua sustatzearen alde edota erkidegoaren autosufizientziaren alde. Gainera, ekoizpen-sistema alternatiboak sustatzearen aldekoa da, sentsibilizazio-ekintzak antolatzen ditu (hitzaldiak, bideo foruma etab.), eta aldaketa sozialerako plataforma bat koordinatzen du. Esperientzia honek Debagoienako Mankomunitatearen babesa jaso du.

### .....• **Elikadura-subiranotasuna eta landa-garapena**

1. Zirkuitu laburren sustapena. Bultzada tokiko merkatuei:

#### a) Azoka tradizionalen berreskurapena:

i. **Ordiziako azoka (Gipuzkoa).** Azoka hau XI-XX. mendean jaio zen, San Bartolome baseliza inguruan, bertan biltzen baitziren inguruetakoko ekoizle ordiziarak. Horrela, historiaren eta tradizioaren poderioz, Ordiziako Azoka erreferente bilakatu da nekazaritzako produktuak ekoizten dituztenentzat: bertako fruta, berdura eta barazkiak, Idiazabal gazta eta bildotsa.

ii. **Gureztatu, Arrasateko azokaren jarduera suspertzeko eta birpentsatzeko ekimena.** Arrasateko Udalak eta Bagara elkarteak sustaturiko ekimen honen helburua da denen artean kontsumo-ohiturak aldatzeko eta egungo kontsumo-logiken gainean gogoeta egiteko lagungarri izango diren espazioak definitzea. Erkidegoaren beharriaz erantzun egokia emateko lekua sortu nahi da. Hauek dira, besteak beste, kontuan hartu eta sustatu nahi diren gaiak: tokiko merkataritzaren sustapena, elikadura osasungarriaren aurreko arduraren sustapena, produktuen ekologikoen eskaria, tokiko sare eta harremanen sustapena, kontsumo-dinamika solidarioak garatzeko espazioak, aisialdi-ereduak, etab. Bizi-kalitate integrala lortzera bideraturiko aukera eraldatzaileak dira. Gakoa honakoa da: gizarte nahiz printzipio eredu berrietara iristeko baliagarriak diren kontsumo-praktikak esperimintatzea.

b) **Bertatik-Bertara. Urola-Garaiko Mankomunitatea (Gipuzkoa).** Mankomunitatea osatzen duten udalerriek (Ezkio-Itsaso, Urretxu eta Zumarraga) 2012az geroztik sortu eta landu duten proiektua eta marka da Bertatik-Bertara. Tokiko ekoizleen lana ezagutzera ematea da bere helburua, bai eta euren produktuak merkaturatzen laguntzea ere. Ingurumen eta landa-garapeneko batzordean sortutako ekimena da; izan ere, bultzada eman behar zitzaion tokiko produktuak merkaturatzeari. Ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren artean zubiak eraikitzea da azken helburua. Proiektua Urretxun abiarazi ostean, inguruko herrietara hedatu zen. Produktua sortu eta lantzeko orduan parte hartzen duten sektore guztiak barne hartzen ditu proiektuak, mahaira iritsi arte. Eredu iraunkorra da, eta, beraz, ekoizpen iraunkorra ere sustatzen du. Ekoizle, kontsumitzaile edota merkataria gisa parte hartzeko aukera dago.

c) **Tokiko produktuen azoka. Aramaio (Araba).** Aramaioko Udalak, gizarte-mugimenduekin eta Aramaioko Baserri Barri Fundazioarekin elkarlanean, lantaldeen eraketa sustatu du, tokiko azoken eta tokiko produktuen bidez elikadura-subiranotasunaren aldeko proiektuak garatzeko helburuarekin.

Beste udalerrri batzuetan ere tokiko azokak suspertzera bideraturiko jarduerak sustatu dituzte, azoka eta kanpaina berezien bidez. Esaterako, Orozkon (Bizkaia) edota Oñatin, Tolosan eta Zarautzen (Gipuzkoa).

## 2. Produktu ekologikoen sustapena

a) **Produktu ekologikoen azokak.** Zenbait udalek produktu ekologikoen azokak sustatzen dituzte: Oion eta Zigoitia, Araban; edota Aretxabaleta, Zarautz eta Zerain, Gipuzkoan.

b) **Menu ekologikoen prestaketa Gipuzkoan. Ekolapiko.** Ekimen hau 2008an abiarazi zuten Biolur Elkartek, Cristina Enea Fundazioak eta Donostiako Udalak, eta sasoian sasoiko eta bertako elikagai ekologikoak oinarri dituzten menuak prestatzea du helburu. Denbora igaro ahala, eragile berriek egin dute bat proiektuarekin, Kutxa ekoguneak, esaterako. Ekimen honen azken helburua ikastetxeetako jantokietan elikadura osasungarri bezain orekatua sartzea da. Horretarako, honakoak eskaintzen dituzte: menu orekatuak, laguntza teknikoa, elikagaien banaketa eta sentsibilizazio-ekintzak. Une honetan, 860 menu ekologiko prestatzen dira egunero Gipuzkoan, 10 ikastetxe desberdinetan. Zehatzago, haur eskoletan (Oartzunen, Usurbilen, Hernanin, Errenteria-Oreoretan eta 2 Donostian), Beasain eta Ibarako Ikastoletan, eta Segurako udal aterpetxean. Ekolapiko proiektua ez da jadanik existitzen; hala ere, proiektua martxan jarri zuten ikastetxeek menu ekologikoak egiten jarraitzen dute, oraindik ere.

c) **Udal sukaldea. Urduñako Udala (Bizkaia).** Tokiko produktu ekologikoz hornituriko udal sukaldea sortu da, hiru jantoki kolektibotan zerbitzua emateko (adinekoen egoitza, eskola publikoa eta eguneko zentroa). Ekimena 2010ean aurkeztu zen lehendabiziko aldiz. Proiektuaren helburua da tokiko elikadura-sistema garatzea, honako aldeak indartzeko: erkidegoaren garapena, tokiko enplegu-eskaintza, eta elikadura osasungarri eta sasoikoaren eskaintza, eskualdeko kultura gastronomikoari lotutakoa. Sukaldearen azpiegitura bazegoen dagoeneko, egoitzako sukaldea, hain zuzen ere. Sukalde instituzional gisa katalogatuta zegoen, eta egoitzan bertan soilik ematen zuen zerbitzua. Gainerako zentroetan kudeaketa zuzeneko jantokia daukate. Egoitzako sukaldea gainerako zentroetatik hurbil egoteak udal sukaldearen proiektua mahai gainean jartzea ekarri zuen. Instalazioak egokitu dira, osasun arloko baldintzak betetzeko; hau da, sukalde zentral izatetik "tokiko catering" zerbitzua ematera.

- d) **Klausula sozialak barne hartzea.** Zenbait udalek klausula sozialak adosten dituzte, eta, horien arabera, udal jantokietarako erosketak egiterakoan lehentasuna dute elikagai ekologikoek, bertakoek edota merkataritza justu bidez eskuratutakoek. Gasteizko Udala da horren adibide bat, mota horretako klausula sozialak barne hartzearen alde egin baitzuen, aho batez. Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak barne hartzeari buruzko gaia Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuari buruzko atalean landu dugu.
- e) **Aholkularitza ekoizpen ekologikoari. Urduñako Udala (Bizkaia).** Urduñako Udalak 2006az geroztik sustatzen du jarduera hau; horren bidez, nekazaritzako produktu ekologikoei buruzko aholkularitza-zerbitzua eskaintzen zaie inguruko baserritarrei.

### 3. Lehenengo sektorearen defentsa:

#### a) Landa Lurzoruaren Funtsa.

**Bizkaiko Foru Aldundiak –BFA–,** Nekazaritza Sailaren bidez, eta Basalan sozietate publikoaren nahiz Nekazaritza Lurren Bitartekaritza Bulegoaren kudeaketari esker, programa bat sustatu du, nekazaritzako ustiategiak landu nahi dituzten pertsoneri lursailak eskaintzeko, bai aurretiaz zeuden lurrak bai berriaz sorturikoak, eta gazteei nahiz emakumeei lehentasuna emanez, betiere.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak –GFA–** Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa Garatzeko Sailaren bidez sustatu du programa hau, eta Behemendi Landa Garapenerako Elkartea arduratzen da kudeaketaz. Nekazaritzara bideraturiko finkei erabilera eta aprobetxamendua arautu nahi da, helburu bikoitzarekin: lursail horiek bertan behera eta abandonatuta ez geratzea, eta beharrezkoak duten norbanakoei lursailak eskaintzea, erabilera hauetarako: nekazaritzarako, abeltzaintzarako, basogintzarako, natur zein ondarearen artapenerako edota interes soziala duten bestelako erabileretarako.

**Tolosako Udalak** lursailez osaturiko funtsak ditu, nekazaritza ekologikoko proiektuen bat abiarazi nahi duten gazteei eskaintzeko. Lursailak hiru urtez eskaintzen zaizkie, bai eta herriko azokan postu bat ere. Hiru urteak igaro ostean, Udalak lursail propio bat bilatzen laguntzen die, jarduera bertan jarraitu ahal izateko.

Beste udal batzuek ere, **Arrasatek** esaterako, lursailez osaturiko funtsak jartzen dituzte gazteen eskura, euren jarduera abiarazteko aukera izan dezaten.

- b) **Laguntza lehen sektoreko proiektu bereziei. Gipuzkoako Foru Aldundia.** Euren bizimodua nekazaritzan oinarritu duten norbanako, pertsona eta erakundeei zuzenduta dago. *“Lehen sektorean interes berezia duten proiektuak egiteko nekazaritza eta abeltzaintzako Gipuzkoar elkarte eta erakundeentzako diru-laguntzak”*. Hauek dira azken helburuak: nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan iraunkortasun nahiz autonomia maila handiagoa erdiestea; ekoizpen-sistema eta nekazaritza ekologikoak, bertoko ganadu-arrazak eta tokiko haziak erabiltzen dituzten laneko ildoak sustatzea; nekazaritza eta abeltzaintzako produktuentzako salmenta-zirkuitu laburrak, tokiko merkatuak eta sasoiko merkaturatzeak bultzatzea; eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiaren dibertsifikazioa eta zabalkundea sustatzea. Proiektuak garatzeko beharrezkoak diren materialak eta ekipamenduak erosteko nahiz alokatzeko diru-laguntzak ematen dira; bai eta proiektuak garatzeko beharrezkoak diren kostu orokorrak eta langileen ordainsariak, eta laguntzaren helburuari lotutako azterlanak eta zabalkunde kostuak ere. Laguntza jaso dezakete: Gipuzkoan finkatuta dauden nekazaritza edota abeltzaintzako ekoizleen elkarteek, kontseilu arautzaileek eta jatorri-deiturek.

c) **Nekazalgunea, Tokiko Landa Garapenerako Proiektu Integrala. Zeberio Udalak (Bizkaia).** Zeberio Udalak lehen sektorea dinamizatzeko interesa erakutsi du; horrez gain, lbaita an-munduan sartzeko arazoak dituzten eta egoera sozio-ekonomiko larria bizi duten pertsonentzako lan edota etxebizitza aukerak antolatzeko nahia ere, gazteak, esaterako. Proiektuaren helburua da lursail jakin batzuk eskaintzea nekazaritza ekologikoan oinarrituriko proiektuak garatu nahi dituztenei, eta etxebizitza gisa apartamentu bat izateko aukera ematea proiektuaren lehendabiziko garapen-faseak dirauen artean. Horrez gain, Ermitabarriko eskola zaharretako espazioa ere utziko zaie, lehen sektoreko produktuen prestaketa, eraldaketa eta kudeaketarekin lotutako instalazioak bertan muntatu eta martxan jarri ahal izateko. Prozesu integral honek errealitate sozio-ekonomikoaren eremu hauetan eragin nahi du: gizarteratzea eta laneratzea, garapen ekonomikoa, gazteak bizimodu aktibo autonomoan txertatzea, demografiaren finkapena eta landa-eremua zaindu eta hobetzea. Esleipenak honako irizpideen arabera egingo dira: iraunkortasuna, bideragarritasuna, nekazaritza ekologikoa, enplegu-sorrera eta erkidego-ikuspegia. Genero-ikuspegiari 10 puntu dagozkio baremo orokorrean (nekazaritza ekologikoak eta iraunkortasunak dituzten puntu-kopuru bera). Marko honen baitan sortu da arestian aipatutako Maskilu ekimena. Kontserba-fabrika kolektiboa da, sasoiko fruta, barazki eta ondoak artisau-eran prestatzeko eraldaketa-aretoa, hain zuzen ere. Espazio horretan, edonork bete ditzake bere barazki eta fruta poteak, urte guztian zehar.

4. **Gipuzkoako Foru Aldundiak landa-inguruneari emandako laguntzak.** Laguntza ekonomikoa emateko linea bat dauka, mendialdean kokaturiko nekazaritza-ustiategiak titular diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan beharrezana dutenei zuzendutakoa. Laguntza-linea honen helburuak dira: nekazaritzako lursailak etenik gabe erabiltzen direla bermatzea, eta, horrela, landa-erkidego iraunkorra mantentzea; nekazaritza-sistema iraunkorrak artatu eta sustatzea, ingurumen alorreko eskakizunak bereziki kontuan hartuz; gutxiago ekoizteak dakarren errenta-murrizketa konpentsatzea nekazari.

5. **Elikadura Subiranotasun Proiektuak Zarautzen (Gipuzkoa).** Udalak Bizilur elkartearekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartu du, elikaduraren subiranotasuna sustatzeari dagokionez. Era berean, Gipuzkoa mailan gai hori lantzen diharduten beste erakunde batzuek proposaturiko gogoeta eta jardueretan ere parte hartzen du; kasurako, EMAUS Fundazio Soziala, zeinarekin zenbait bilera izan dituen. Horiek proposatzen dituzten hitzaldi eta sentsibilizazio ekintzetan ere hartzen du parte. Etorkizunera begira, nola posizionatu aztertzen ari dira, nekazaritza ekologikoaren ikuspegitik, eta lehen sektorea sustatzeko helburuarekin, betiere.

## .....• **Lurraren eta ingurumenaren zaintza**

### 1. Aldaketa klimatikoaren kontrako Udal Planak:

a) **Noaingo Udala-Elortzibar (Nafarroa).** 7.200 biztanle inguru dituen udalerria da. Industriako eta nekazaritzako sektoreen artean bizi da, erdibidean. Plan honek udal txiki batek aldaketa global baten alde egin duen erronka islatzen du. Plana 2007an onartu zen, eta karbono-maila baxuko garapen-eredura bideratu nahi du udalerria. Kultura industrial nahiz merkataritzakoa eraldatzea da helburua, bai eta herritarren kultura ere. Udal eskumenetatik abiatuta, 4 linea estrategiko proposatzen dira: efizientzia energetikoa, energia berriztagarrien sustapena, Co2 hustubideen sorkuntza, eta komunikazioa eta herritarren parte-hartzea. Emaizak: 2003az geroztik, udal instalazioetan biztanle bakoitzeko kontsumitzen den energia %29 murriztu da; karbono-aztarna neutroa duten 2 udal eraikin altxatu dira; energia berriztagarrien 15 udal



instalazio sortu dira; sare publikoko ikasleek %100ean hartu dute parte Agenda 21 egitasmoan; kolaboratzaileen sare bat sortu da; zenbait udalerrik eman diote laguntza “klimarako paisaiak” planari; urtean 200.000 € aurrezten dira Udalaren kudeaketa iraunkorraren ondorioz; familien %70ek landatu du bere “zuhaitz ahaidea”.

**b) Areatzako Udala (Bizkaia).** 1.172 biztanle dituen udalerrri honek Aldaketa Klimatikoaren kontrako Borrokari buruzko Udal Ordenantza adostu, eta Aldaketa Klimatikoaren kontrako Udal Programa prestatu du 2010etik 2015era arteko epealdirako. Hauek dira orain arte Udalak garatu dituen jardueretako batzuk: Ikuskaritza energetikoak eraikin eta argi publikoetan, eta dagozkion neurriak martxan jartzea; trafikoa murrizteko neurriak barne hartzen dituen II. Mugikortasun Iraunkorreko Plana; bideak oinezkoentzat prestatzea; Oinezbusa, etab.; eremu berdeak gehitzea eta udal mugartean zuhaitzak landatzea, isurbide-efektua areagotuz. Esperientzia honen ondoriozko arrakasta-faktoreak dira, besteak beste, tokiko iraunkortasunaren alde udalerrriak egindako ibilbide irmoa, eta herritarren parte-hartzea ahalbidetzen duen mekanismo egonkor baten existentzia. Mekanismo hori erabili da, halaber, Aldaketa Klimatikoaren kontrako Borrokari buruzko Udal Programaren ekintzak definitzeko orduan. Antzeko esperientziak aurkitu ditzakegu Araban (Amurrio), Bizkaian (Balmaseda eta Durango) eta Gipuzkoan (Legazpi eta Tolosa).

**2. “Zentzumenen lorategia”.** Lorezaintza ekologikoa interpretatzeko zentroa. Iraunkortasun espazioa. **Noaingo Udala-Elortzibar (Nafarroa).** Proiektu hau Noaingo Udalak (Elortzibar) garatu du, Varadiz Fundazioarekin elkarlanean. 25.000 metro koadroko parke hau iraunkortasunaren ikuspegia kontuan hartuz egindakoa da, eta 2006. urtean inauguratu zen. Parke honetan garatu den lorezaintza, udalerriko beste lorategietan bezala, teknika ekologikoen bidez egin da. Parke barruan LORENEA dago, iraunkortasunaren aldeko ekimenak (ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak, aurkezpen publikoak, etab.) sustatzen dituen Iraunkortasun-espazioa. Baina, horrez gain, eraikin bitxia da, bioklimatismo pasibodun tekniken bidez eraikitakoa delako; zehazki, bai hormak bai teilatua lastozko fardelekin eginak daude.

**3. Ekonomiazirkularreko proiektuetarako laguntza-lineak. Eusko Jaurlaritza.** Ekonomiazirkularren kontzeptua garapen iraunkorraren baitan barne hartzen den kontzeptu ekonomikoa da. Ondasun eta zerbitzuak ekoiztea da bere helburua, eta, aldi berean, kontsumoa eta bestelakoen alferreko galerak murriztea; esaterako, lehengaiak, ura eta energia-iturriak. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak laguntza-linea bat dauka ekonomia zirkularra bermatzen duten proiektuentzat. 2016ko deialdia proiektu pilotuak eta proba industrialak egiteko laguntzetan oinarritzen da; horien bidez, enpresentzako konponbide eta aukera berrien bideragarritasun tekniko, ekonomiko nahiz ingurumenekoa egiaztatzen da, honakoei dagokienez: bereizketa kasuak, bigarren mailako materialen bilketa eta birziklatzea, bigarren mailako material ugari dun produktuen fabrikazioa, produktuak berrerabili edota piezak, osagaiak eta ekipoa berririo manufakturatzea.

#### **4. Mugikortasun iraunkorra:**

**a) “Car Sharing” proiektuak.** Ibilgailuak alokatzeko sistema bat da, eta auzotarren mugikortasuna erraztea du helburu. Onura garrantzitsuak dakartza ingurumenaren arloan; hala nola, berotegi-efektua eragiten duten gas-isurketak murriztea, baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea, edota ingurune garbi eta osasungarria bermatzea. Udal mailan zenbait esperientzia egin dira, eta sistema hau publikoki abiarazi dute. Kasu gehienetan, Ibilgailu arduratu da kudeaketaz, hau da, irabazi asmorik gabeko Eusko CarSharing elkartearen proiektua. Hori horrela, Uribe-Kostako Mankomunitateak, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzarekin, Ukanauto izeneko zerbitzua jarri zuen martxan 2011n.

Zerbitzu horrek Gorliz, Berango, Lemoiz, Urduliz eta Sopelako udalerrriak barne hartzen ditu. 2012az geroztik, antzeko sistema bat daukate Arratiako eskualdean, Auzokar izenekoa, eta Areatzako udalerrrian dago kokatuta. Berringurumena 2010 ideia-lehiaketaren emaitza gisa jaio zen Auzokar. Lehiaketa hori, bestalde, Udalsarea 21-Udalerrien Euskal Sarearen zerbitzu gisa antolatu zen, mugikortasuna bezalako funtsezko eremuetan proiektu ekoberritzaileak sustatzeko helburuarekin. GFAk sustaturiko Lurraldekar da mugikortasun iraunkorraren baitan dagoen beste programetako bat. Hala ere, lankidetzaz-jarduerei dagokien atalean sartu dugu, ibilgailu-jabe partikularrak barne hartzen dituelako ibilgailua partekatze programa barruan.

**b) Bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoak.** Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri batek baino gehiagok dauka bizikletak alokatzeko sistema publikoa. Horien bidez, mugikortasun iraunkorra sustatu nahi da. Hemen nabarmenduko ditugun esperientziak, ingurumena eta mugikortasun iraunkorra bezalako gaien inguruko kontzientzia sustatzeaz gain, badute beste helburu bat ere: gizarte-bazterketa egoeran edota bazterketa arriskuan dauden pertsonen inklusioa ahalbidetzea. Hori da, hain zuzen ere, Getxo (**GetxoBizi**) eta Leioa (**BiziLeioaBizi**) udalerrietako sistemen kasua; zerbitzu hori, izan ere, Bilboko Emaus elkartearen bidez kudeatzen dute. Antzeko beste esperientzia bat Uribe-Kosta Mankomunitateko "**Bizimeta**" ohiko bizikleta nahiz bizikleta mekanizatuen mailegu-zerbitzua dugu. Bizikleta estandarrek eta bizikleta elektrikoak uztartzen dituen Euskadiko lehendabiziko sistema da. Sistema elektriko berri bati esker, motor elektrikoaren bateria automatikoki birkargatzen da Bizi Puntuan (Punto Bici). Proiektu honen puntu aipagarri gehiago: Bizkaiko garraio-sare publikoan ordaintzeko egiteko erabiltzen den sistema bera (Barik) erabil daiteke hemen ere, eta prezio merkeagoak eskaintzen ditu. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba batek kudeatzen du sistema, Rezikleta Cooperativa de Iniciativa Social kooperatibak, hain zuzen ere.

**c) Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritarren Ituna (Araba).** Mugikortasun iraunkorraren aldeko herritar Foroaren inguruan antolaturiko herritarren parte-hartze prozesua da. Lehendabiziko edizioan 2006-2010 Mugikortasun Iraunkorreko Plana definitu zen, zenbait tailerren bidez. Tailer horietan, mugikortasun-eredua definitu zen, bai eta udalerrirako egokiak diren espazio publikoen sarea ere. Bestelako komunikazio-bideak ere antolatu ziren; hala nola, 010 telefonoa, udal erregistroa, webguneko eztabaidarako foroa, etab., tailerretan parte hartu ez zuten herritarren iritzia ere kontuan har zedin. 2015ean, II. Mugikortasun Iraunkorraren aldeko herritar Foroa egin zen.

## 5. Hobariak:

**Bergarako Udalaren "Ibilgailua garajera" programa 2014.** urtean abiarazi zen, helburu ugariarekin: ibilgailuak garaje edota aparkalekuetan sartzera, aparkaleku publikoetako plazak libratzea, eta udalerrian mugikortasunaren alde egin, eta ibilgailurik gabeko mugimenduak ahalbidetzea. Hirigunean kokaturik dauden garajeetako jabeek %75eko hobaria aplikatuko zaie Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (IBI), baldin eta ez badute ibilgailua euren garajeari dagokion zonaldeko aparkaleku publikoetan uzten. Hobari hori esku-dirutan edota herriko komertzioetan trukatzeko moduko txarteletan jaso daiteke.

2016an, **Errenerriako Udalak** hobari bat ezarri zion materia organikoa modu arduratsuan birziklatzen duten etxebizitzetara zabor-tasari. Horrela, bada, erkidegoan nahiz etxean konpostajea egiten duten etxebizitzek %25eko hobaria izango dute. Bosgarren edukiontzia baliatuta Materia Organikoaren Gaikako Bilketarako Udal Programan aktiboki parte hartzen dutenei %5eko hobaria aplikatzen zaie.

## 6. Hondakinen kudeaketa:

a) **Ekonomia solidarioko erakundeak lehenestea.** Zenbait udaletan, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak lehenesten dira hondakinak kudeatzeko zerbitzuak kontratatzerakoan; hala gertatzen da, adibidez, Gasteizen (Araban), Alegian (Gipuzkoa) edota Barakaldon (Bizkaia). Barakaldoren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Kooperak (ekonomia sozial eta solidarioko kooperatiba) hondakinen berrerabilera helburu duen zerbitzua adostu dute. Zerbitzu honi esker, honakoak biltzen dira: arropa, oinetakoak eta osagarriak, jostailuak, liburuak eta gailu elektriko nahiz elektroniko txikiak. Objektu horiek berriz erabiltzea da helburua, hondakinek ingurumenean daukaten eragina murrizten duen kontsumo arduratsua sustatuz. 23 edukiontzi ezarri dira guztira, hiriko leku desberdinetan.

Beste adibide batzuk **San Markos Mankomunitateko** Garbiguneen kudeaketan aurki ditzakegu. Koopera<sup>1</sup> arduratzen da kudeaketa horretaz, eta, gainera, berrerabiltzera zuzenduriko eremu bat ere gehitzen du, oraindik ondo funtzionatzen duten objektuak bertara eramateko.

b) **Zabor organikoa birziklatzea.** Ingurumenaz arduratzen diren eta ortu ekologikoak dituzten zenbait familia aitzindarik, Gipuzkoako udalen laguntzarekin, zabor organikoa birziklatu eta konpost bilakatzen duen sistema abiarazi dute. Udaler horrelako ekimenak saritu, eta horiek aurrera eramateko behar dituzten azpiegiturei laguntza ematen diete. **Usurbil** aitzindaria da udalerrien artean, eta **Oñati** ere aipatu beharra dago; hala ere, **Donostialdea, Urola Kosta, Urola Erdia, Debagoiena, Tolosaldea, Debabarrena eta Txingudi** bezalako mankomunitateetan ere ezarri da, **bai eta Lasarte-Oria, Azpeitia, Zestoa, Azkoitia, Aizarnazabal, Orendain edota Mutrikuko** udalerrietan ere. Antzeko esperientziak aurki ditzakegu Nafarroan, **Sakanan**, hain zuzen ere.

7. **3Rak deritzenak (murriztu, berrerabili eta birziklatu) hedatu eta bultzatzeko proiektuak.** Atal honetan jasotako esperientziak sentsibilizazio-kanpainei dagozkienak dira, batik bat; Alegia, Oñati, Tolosa, Lasarte-Oria, Zarautz edo Hernani, Gipuzkoan, eta Gasteiz, Araban. Zarautz bezalako beste udalerrri batzuetan, 3R horiek sustatu eta hedatzeko politikak garatzearen aldeko erabakia hartu, eta %70ean jarri dute birziklatzearen helburua. Hala ere, zabor-bilketaren inguruan sortu diren hika-mikak direla-eta (atez atekoa, 5. edukiontzia...), sistema hau aldatu gabe dago oraindik. Atal honetan, GFaren bi proiektu nabarmendu nahi ditugu, garrantzitsuak direla uste baitugu:

a) **Dendartean eta denon artean Zero Zabor.** GFak sustaturiko proiektua da. Aldundiak hitzarmen bat sinatu zuen 2014. urtean Gipuzkoako Merkatarien Elkartearekin; horren arabera, 2015ean Gipuzkoako 7 udalerritan garatu zituen ekintzak (Erreterria, Hernani, Ordizia, Azpeitia, Urretxu-Zumarraga eta Zumaia). Hauek izan dira ekintzok: Hondakinak gutxitzeak duen garrantziari buruzko informazio-panelak jartzea, irudi eta datu garrantzitsuz hornituta, herritarrak sentsibilizatzeko helburuarekin; plastikozko poltsak konpostatzeko moduko poltsa biodegradagarriekin ordeztzea; bezeroei hondakin gutxiago sortzeko aholkuak ematea; eta komertzioak jarduera egokien arloan hezteak, sortzen dituzten hondakinak kudeatu eta murrizteari dagokionez.

b) **Zero Zabor Eskolak.** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aranzadi Zientzia Elkartek, Ikastolen Elkartek eta Kristau Eskolak hitzarmen bat sinatu zuten 2012ko urrian, ikastetxeetan Zero

1 Klausula sozialak barne hartzen dituen lehiaketa publikoa, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko helburua duena.

Zabor izeneko filosofia lantzeko, hala Lehen Hezkuntzan nola Bigarren Hezkuntzan. Hori horrela, hitzarmen hori Gipuzkoako 7 ikastetxetan ezarri zen, proba pilotu gisa. 2013-2014 ikasturtean, programa 24 ikastetxetako 68 ikasgelatan landu zen, eta 2014-2015 ikasturtean, berriz, beste 24 ikastetxetako 70 ikasgela bisitatu ziren. Tailerretan, Euskal Curriculumak proposaturiko honako eskumena lantzen zen: *"Gizarte-errealitatea hobetzeko eta natura defendatzeko proiektuetan konprometitzea, norberaren edo/eta kolektiboen interesetan oinarritutako hausnarketan eta iritzi kritikoen ondorioz"*.

## .....• **Kudeaketa publikoa**

1. **Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak.** 2003an, Euskadi osoa aintzat hartuta, parte-hartzean oinarritutako aurrekontuen lehendabiziko prozesua ezarri zen Donostian; bertan, arloko kontseiluak edota Tokiko Agenda 21i aplikatutako tailer parte-hartzaileak bezalako mekanismoek hartzen dute garrantzia. 2011. urteko hauteskundearen ostean, bultzada berria eman zitzaion parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak udal kudeaketarako tresna gisa erabiltzeari, Bilduk gobernatzen zituen Gipuzkoako udalerrietan, batez ere. Prozesu bien arteko aldea hau da: batean auzo asanbladek edo gaikakoek dute pisu nagusia; bestean, berriz, galdeketa eta tailerrak baliatzen dira:

a) **Oñatiko**a bezalako esperientzia aitzindarietan, auzotarrez osaturiko batzorde batek kreditu-linea bat edukitzen du eskura, lehenesten diren gastuak finantzatzeko helburuarekin; gainera, auzotartasuna eta erkidego izaera ere indartu egiten ditu horrek.

b) Beste esperientzia aipagarri bat, duen eragin-mailagatik, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** abiarazitakoa da; horren bidez, aurrekontuaren zati bat herritarren esku uzten da, zertan inbertitu erabaki dezaten. Aldundiak 2015eko abendurako prest izango ditu aurrekontuak; 2014. urtean esperientzia pilotu bat egin zen Urola Erdialdean, eta 2015ean lau eskualdetara hedatu zen. Hau da prozesua: herritarrek euren proposamenak helarazten dizkiote Aldundiari, bai internet bidez, bai etxean betetako galdera-sortaren bitartez. Proposamen horiek eskualde mailakoak izan behar dira, Aldundiaren eskumenekoak, eta pertsonen gain eragina dutenak. Bigarren fase batean, batzarrak egingo dira, eskualdeka, proposamenen artean hautaketa egiteko. Aukeraketa egin ostean, teknikari-talde batek aztertuko ditu proposamenak, ekonomikoki nahiz juridikoki bideragarriak diren ala ez erabakitzeko. Galbahe hori gairatzen duten proposamenak, azkenik, jendaurreko asanbladetan aurkeztuko dira, eskualde guztietan. Eskualde bakoitzak bi milioi jasoko ditu, lau urteko epean inbertitzeko.

c) **Laudio** (Araba), **Igorre**, **Otxandio** (Bizkaia) eta **Zumaia**ko (Gipuzkoa) udalerrietan, parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak udal kudeaketaren tresna gisa barne hartzen dira, eta barrutietako kontseiluen bidez kudeatu.

d) Beste udalerrri batzuetan, berriz, galdera-sortak eta herritarrei galdeketa egiteko tailerrak egin, edota proposamenak zuzenean Udalari helarazteko tresnak diseinatu dira. **Gasteiz**ko kasua azpimarratu beharra dago, hiriburua izanik, "Zure Auzoa hobetuz/Mejora tu barrio" programarekin. Elkarrekin eta lurralde-kontseiluek pisu edota zeresan handia dute, eta herritarrei proposamenak egiteko aukera baino ez zaie ematen. Beste esperientzia batzuk ere aipa daitezke; esaterako, **Elorrio eta Berango**, Bizkaian, edo **Eibar**, Gipuzkoan.

e) Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak dituzte, era berean, **Alegian**, **Astigarragan**, **Lasarte-Orian**, **Tolosan eta Zarautzen** (Gipuzkoa), eta **Leitzan** (Nafarroa).

## 2. Lurzoruaren kudeaketa iraunkorra eta ez espekulatiboa:

- a) **Gipuzkoako Foru Aldundia.** Gipuzkoako udalerriei laguntza eskaintzen die, udal jabetzakoak diren lursailak edota gutxi erabiltzen direnak egokitu, eta enplegu berdea sustatzeko. Laguntza ekonomiko hori beharrezkoak diren azpiegitura eta instalazioak hornitzera bideratuta dago, nekazaritza-jarduerari lehendabizikoz ekiten dioten auzotarrek erabil ditzaten, bai eta aurretiaz existitzen ziren nekazaritzako ustiategien titularrek ere, ustiategi horien bideragarritasuna areagotuz, betiere.
- b) **Gasteizko funtzio anitzeko eraztun berdea.** Hiriaren inguruan funtzio anitzeko eraztun berde bat sortzeko Udalak egindako proposamenak honako helburuak ditu: bertako ingurumen-kalitatea hobetzea, herritarrei onura ekonomiko eta sozialak eskaintzea, natura hirian integratzea, eta nekazaritzara bideratzen diren lursailak Gasteizko hiriaren biriki eta iragazki berde bilakatzea. Diseinatu diren instalazioek jarduera berriak garatzea eragin dute; jarduera horiek aisiarekin, denbora librearekin eta ingurumen arloko prestakuntza nahiz sentsibilizazioarekin lotutakoak dira, eta naturarekin estu lotuta daude. Gizarteratzeko edota lan-munduan integratzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzenduriko hezkuntza-jarduerak ere egiten dira, ingurumenarekin lotutako enplegu-sektoreetan. Proposamenak oso koherenteak dira ingurumenari dagokionez, eta, ondorioz, mantentze-lanak oso merkeak dira. Hiriaren bihotzetik bertatik jo daiteke eraztunera, oinezkoentzako ibilbideak edota bestelako modu ez kutsagarriak baliatuz.
- c) **Oiartzungo Udala.** Lurzoru urbanizaezina 6 kategoria desberdinetan sailkatu zuten, babes-mailaren arabera. Kategoria horietako bakoitzari erabilera jakin batzuk egokitu zaizkio, garatu ezinezko erabilerak barne. Kategoria horiek eta erabilerak elkarrekin gurutzatu ondoren, katalogo bat prestatu da, eta udalerriko lurzoru urbanizaezinak horren arabera antolatu dira. Lursailak arduragabekeriak kontsumitzeari muga jarri nahi zaio. Udalerriko lursailak erkidegoarenak dira %85ean. Hori horrela, lehen sektorerako bideraturiko eremuak babestu eta ugaritu nahi dira, ingurunearen kontserbazioa ahalbidetuz eta uraren zikloa bermatuz.
- d) **Ordiziako Udala.** Aurreko Udalbatzak adosturiko konpromisoa hautsi, eta golf-zelaia eraikitzeak makro-proiektua geldiarazi da. Espazio natural hori, orain, herritarren esku jarri da berriz ere, eta guztien artean erabakiko dute bertan zer egin. Proiektua gelditzearen aldeko prozesutik sorturiko ekintza-taldeak proposamen desberdinak helarazi zizkion Udalari. Azken horrek, bestalde, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Aranzadi Zientzia Elkartearekin, Oianguko natur baliabideak artatu eta horri buruzko sentsibilizazio-maila areagotzeko helburuarekin. Lankidetzaren baitan ekimen ugari garatu dira urtean zehar. Udalak lantalde iraunkor bat sortu du Basque Culinary Centerrekin lankidetzan, honako helburuarekin: gastronomia, elikadura, ingurumena eta iraunkortasuna uztartzen dituen proiektua garatzea Oiangu Baserriko jatetxean, hezkuntza eta prestakuntzatik abiatuta.
- e) **Hiri-baratzeak.** Zenbait udalek nekazaritzarako balioa duten lursail publikoak eskaini dituzte, hiri-baratzeak sortzeko. Horien helburua da herritarren kalitatea hobetzea, aisialdirako eremuak sortu eta udalerriko bizitza soziala dinamizatzea, kohesio soziala eta solidaritatea areagotzea, ingurumena oinarri duten balioak hedatu eta horien sentsibilizazioa sustatzea, hezkuntzarako espazioak sortzea, etab. Partzelak deialdi publiko bidez eskaini ohi dira, lehiaketa gisa. Ohikoa da deialdi horiek zenbait irizpide sozial barne hartzea, bazterketa-egoeran edota egoteko arriskuan daudenei espazioak erreserbatzeko, hala nola, emakumeei, langabeei, erretiratuari, gazteei, etab. Bizkaian baditugu honelako esperientziak, Bilboko hirian esaterako, edota **Berriz, Igorre edo Galdakaon**; eta Gipuzkoaren kasuan, **Tolosan, Oñatin eta Zarautzen**. Zarautzen, zehazki, kudeaketa-ereduaren inguruko gogoeta egiten

ari dira, eta orain arteko eredia aldatu nahian dabilta, auto-kudeaketan eta baterako lanean sakondu nahian. Nafarroan ere identifikatu ditugu hiri-baratzeak, **Berritzarren eta Zizurren**, hain zuzen ere.

**Gasteizko Auzo Etxeetan egiten den Hiri Nekazaritza Ekologikoaren Programa** nabarmendu nahi dugu. Programa hori Permacultura Kiribilore elkarteak sortu zuen 2010ean, eta 2015eko urriaz geroztik Udalaren Ingurumen Gaietarako Ikastegiak (CEA) kudeatzen du. Espazio parte-hartzaile eta erakusgarriak dira, eta nekazaritza ekologikoa, elikadura osasungarria eta bertako produktuen kontsumoa sustatzea dute helburu. Programazio propioa dauka, eta, horrez gain, baliabideak eskaintzen dizkie zentroetan egiten diren jardueri. Ingurumen Gaietarako Ikastegiak (CEA), gainera, hauek sustatzen ditu: Eratzun Berdeko udal baratzeak, Falerina lorategiko baratzea (Montehermoso Kultur Zentroan dagoen Udalaren ostalaritza-zentroko sukaldea hornitzen du), Zabalortu (Zabalganako auzotarrek kudeatzen duten hiri-baretze proiektua) eta unibertsitateko baratze ekologikoa.

**Aguraingo** Udalak (Araba), beste erakunde batzuekin elkarlanean, baratze txiki bat jarri du martxan udalerriko Eguneko Zentroan, adineko pertsonen nekazaritza ekologikoa landu ahal izateko. Ekimen horren helburuen artean, aipatzekoak dira, alde batetik, gizarteko sektore desberdinetan lorezaintza nahiz nekazaritza ekologikoa sustatzea; eta, bestetik, adineko pertsonen onura emozional zein fisikoa eskaintzea. Eguneko Zentroa Arabako Foru Aldundiaren mende dago, eta Arazoak elkarteak kudeatzen du. Baratzea, bestalde, bi eguneko iraupena izan zuen tailer baten emaitza da.

### 3. Espazio eta zerbitzuen kudeaketa:

#### a) Herritarrek berreskuratu eta kudeaturiko espazioak:

i. **Dimako Udal Liburutegia (Bizkaia):** 2013an jarri zen martxan, Udalaren egoera ekonomikoa zela-eta itxita baitzegoen, nahitaez. Ekimena Auzolan bidez garatu zen. Aparejadorea den auzokide baten laguntzaz, egin beharreko konponketa-lanak zehaztu ziren. Liburu-bilduma guztiz zaharkituta eta atondu gabe zegoen, eta behar bezala antolatzea lortu da, auzokide liburuzain baten laguntzari esker. Lokala konpontzeko behar beste diru eman zuen Udalak, eta herritarrek liburutegia irekita mantentzeko txandetan antolatu ziren, euren borondatez. Udalak txartel bidezko sistema elektronikoa eskaini du, instalazioak modu autonomoan erabili ahal izateko.

ii. **Zine-aretoa berreskuratzea. Lekeitioko Udala (Bizkaia).** Lekeitioko zine-aretoa mantendu, eta, ondoren, suspertzeko ekimena da honako hau. 2013. urtean zinemasale talde bat bildu zen, zine emanaldiak berreskuratzeko asmoarekin. Horrela, bada, elkarrekin bat sortu zuten, eta, gaur egun, 500 kide dituen elkarrekin horrek. Udalak laguntza ekonomikoa eskaini, eta hilean birritan erabiltzen du aretoa.

b) **Proposamen parte-hartzaileak/ Espazioak elkarrekin kudeatzea.** Hirugarren sektoreko erakundeei, elkartei, etab. espazioak lagatzen dizkiote zenbait udalek. Multzo honetan kontuan hartu ditugun esperientzietan, lagatako espazioa erabiltzaile guztien artean kudeatzen dute, edo/eta denek hartzen dute parte espazio horren diseinuan:

i. **Harrionda Zentroa. Lesakako Udala (Nafarroa).** Kultur arloko eragile eta talde guztiak biltzen dituen zentro kulturala da, eta herritarren parte-hartzearekin kudeatzen da 2013az geroztik. Hasiera batean egituratzar bat eraikitzekeo proiektua aurreikusi bazen ere, proiektuaren aldeak berriro dimentsionatu, eta azken emaitza herritarrekin partekatu zen. Funtzionatzeko era berezia du, ordutegirik eta zaintzailerik gabe; eta talde bakoitzak

bere giltza propioa dauka. Taldeek eurek adosten dute zenbat orduz eta/edo egunez erabili aretoak, eta garbiketa modu mankomunatuan egiten dute. Talde horiek ikuskizun eta ikastaroak eskaintzen dituzte kultur agendaren baitan. Koordinazioaz arduratzen den talde bat ere badago, hilero biltzen dena kexak, zalantzak, proposamenak eta antzekoak bideratzeko. Koordinazio-taldea arduratzen da esleitutako partida ekonomikoari jarraipena egiteaz, tasak onartzeaz, sarreraren prezioak adosteaz, etab. Udalak, bestalde, tresna eta neurri zehatzak diseinatzen ditu, proiektuak izaera herrikoia izan dezan eta herritarrengandik gertu egon dadin.

- ii. **Gazte-zentro iraunkorra. Berriozarko Udala (Nafarroa).** Iraunkortasun-irizpideen arabera eraikitako eraikina da, eta modu anitzean kudeatzen da 2015. urteaz geroztik. Gazteentzako zentroa da. Udalak sustatu eta eraiki zuen, une hartan langabezia zeuden pertsonak kontratatuta, eta soldata nahiz lan-baldintza duinak bermatuz, betiere. Material guztiak ingurumen-iraunkortasunaren irizpideak kontuan hartuta erosi ziren, eta bertako saltokietan erositako materialei eman zitzaizen lehentasuna.
- iii. **IZANA erkidegoa. Oñatiko Udala (Gipuzkoa).** Eraikitze-prozesu parte-hartzaile honen bidez, IZANA deritzon erkidegoa sortuko da Eteo eraikinean, eta bertan dauden musika-lokalak kultura, arte eta sormenerako haztegi bilakatuko dira. Sormenaren, gizartearen eta kulturaren alorrean dauden beharriak erantzuna emango dien alternatiba bat garatzea da helburua; horretarako, lankidetzaren ahalbidetuko duen ereduak garatu nahi da, erakunde eta proiektu desberdinen arteko sinergiak bilatuz. Prozesu hau Bagara Herrigintzan erakundearekin lankidetzan egiten ari da, eta eurak dira proiektua diseinatu eta dinamizatzeaz arduratzen direnak. Udala prozesuan parte hartzen duten eragileetako bat baino ez da. Eraikina Udalarena da, baina erabiltzaileek erabakiko dute une oro edukia, eta euren izango da, era berean, jardueren gaineko erantzukizun guztia.
- iv. **Bizikletak aparkatzeko espazioa. Tolosako Udala (Gipuzkoa).** Udalerriko alde zaharrean dagoen patio bat prestatzen ari dira. Orain arte itxita egon den arren, aurrerantzean tolosarrek bertan bizikletak aparkatzeko moduan egokituko da. Espazioaren erabiltzaileak arduratuko dira kudeaketaz zein mantentze-lanez.
- v. **Kudeaketa anitzeko espazioak elkarreentzat. Tolosako Udala (Gipuzkoa).** Udalak espazio bat lagatzen die herriko elkartei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, euren jarduerak bertan garatu ditzaten. Elkarrekin beraiek kudeatzen dute espazio hori, eta bertan gauzatuko diren erabilerekin inguruko erabakiak hartzen dituzte.

#### 4. Sare eraldatzaileei atxikitzea:

- a) **Bidezko merkataritzaren aldeko hiriak.** Bidezko Merkataritzaren aldeko konpromisoa hartu duten udalerrietako eragileek osatzen dute sare hau, Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriak izeneko programaren bidez. Sare honek bidezko merkataritza sustatzearen alde egiten duten esperientziak trukatzeko foro izan nahi du, produktu horiek herritarrei helarazteko helburuarekin. Estatus hori lortzeko, baina, bost irizpide bete behar dira: udalek bidezko merkataritzaren eta mota horretako produktuak kontsumitzearen aldeko ebazpena onartu behar dute; bidezko merkataritzako produktuak eskaini behar dira hiriko kafetegia, jatetxe eta saltokietan; lehen sektorearen eta erakundearen konpromisoa, barne-kontsumoan halako produktuak barne hartzeari dagokionez; herritarrei zuzenduriko komunikazioa eta sentsibilizazioa, eta programa koordinatzeaz arduratuko den talde egonkor bat sortzea. **Bilbok eta Getxok**, Bizkaian, eta **Donostiak eta Legazpik**, Gipuzkoan, lortu dute dagoeneko akreditazioa. **Amurrio (Araba), Arrasate-Mondragón, Irun, Hernani eta Zarautz** (Gipuzkoa), berriz, akreditazio hori lortzeko bidean daude.

- b) **Orendain (Gipuzkoa), ondasun erkidearen udalerria.** 2013an ekin zion ondasun erkidearen Ekonomiaren printzipioak lantzeko ibilbideari. Ondasun erkidearen ekonomia gizarte-eredu alternatiboa da, eta gizartearen onura lehenesten du norbanakoen irabazien aurrean, edota lankidetzan, lehiakortasunaren aurrean. **Orendaingo (Gipuzkoa. 193 biztanle)** esperientzia eta horrekin lotutako jarduera egokiak adibide ezin hobeak dira ondasun erkidearen ekonomiarekin bat egin nahi dutenentzat. Funtzionatzeko sistema horri esker, herri horretako biztanleek euren diru-sarreraren arabera adosten dituzte tasak, edota udalerrian proposaturiko obra eta inbertsioen inguruan bozkatzeko dute. Webgunea berritzea aurreikusi dute, Udalaren banku-kontua une oro kontsultatu ahal izateko. Bozketa baten ondorioz bilakatu zen Orendain ondasun erkidearen udalerria; 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izan zuten bozketa horretan, eta herritarrak aldaketaren alde agertu ziren %90ean.

## .....• **Tokiko garapen alternatiboa eta ekintzailatza ekonomia sozial eta solidarioan**

1. **Ekonomia alternatibo eta solidarioko ekintzaileei zuzenduriko laguntza.** Zenbait udalek proiektu ekintzaileentzako aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzen dituzte; besteak beste, espazioak doan edota prezio merkean lagatzea. Halako zerbitzuak, gehienetan, ez dira ekonomia alternatibo eta solidarioa sustatzeko helburuarekin berriaz diseinatutakoak. Hala ere, Lasarte-Oria bezalako udalek lehentasuna ematen diote halako proiektu ekintzaileak garatzeko lokalak lagatzeari; beste kasu batzuetan, irizpideak zehaztuta eduki ez arren, zerbitzuak eskaintzen dizkiete halako proiektuei, Oñatin, Hernanin eta Alegian, esaterako. Azkenik, ekonomia solidario eta alternatiboan oinarritutako proiektu ekintzaileei laguntza eskaintzen dieten bi esperientzia identifikatu ditugu:

- a) **Orozkoko Udala (Bizkaia)-Ekoizpen eta kontsumorako Esnetik kooperatiba.** Arestian esan dugun moduan, Orozkoko Udala Esnetik kooperatibaren bazkide-laguntzaileetako bat da. Gainera, sortu zen unetik bertatik garatu izan ditu proiektuari laguntza eta zabalkundea emateko ekintza espezifikoko udalerrian. Bizkaiko EHNE bezalako erakundeekin batera, Merkatu Etikoaren proiektua garatu du Esnetik Kooperatibak, "Baserritik-Plazara edo Baserritik-Kalera" lelopean.

- b) **Goierriko Tokiko Garapen Agentzia (Gipuzkoa)-Energia berriztagarria baliatzen duen Goiener kooperatiba.** Goierriko Tokiko Garapen Agentziak aholkulari lanak egin ditu negozio-planean, eta bere haztegiko espazio bat laga du, prezio merkeagoan eta 6 urterako, gehienez. Horrez gain, enpresa berrientzako lehiaketa bat ere sustatu zuen, eta Goiener izan zen irabazlea. Esan dugun bezala, Goierriko Tokiko Agentziak kapital ekarpen bat egin zion kooperatibari, eta bazkide-laguntzaile ere bada.

- c) **Geltokia. Iruñeko Udala (Nafarroa).** Proiektu honek hiriko espazio bat berreskuratzea barne hartzen du, kudeaketa anitzaren ikuspegitik eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko helburuarekin. Hori horrela, Iruñeko Udalak autobus-geltoki zaharra berrizatzeko prozesua abiarazi zuen 2015ean, hirian okupatu gabe dauden espazioak erreferentziazkoak izan daitezen honako helburuei dagokienez: ekonomia solidarioa sustatzen duten jarduerak garatzea, tokiko garapena sustatuz, eta tokiko produktuak, artisautza, komertzio txikiak, ekintzaile txikiak, ekoizleak eta artistak barne hartuz. Ekimen hori Udalak sustaturiko Pobrezia eta Prekarietatearen kontrako Foroan jasotako neurrietako bat da. Foro hori pobrezia-egoeraren diagnosis egin eta horren inguruan proposamenak aurkezteko sortu zen, eta sektorekako lau taldetan egituratuta dago: eskubide sozialak, etxebizitza, ekonomia sozial eta solidarioa,



eta dibertsitatea. Talde horietako bakoitzean mugimendu eta erakunde sozial desberdinek hartzen dute parte; horien artean, Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareak (REAS Navarra).

**2. Laneratze-enpresa baten eraketan parte hartzea.** Tokiko erakundeek, aldundiek edota tokiko garapen agentziek laneratzera zuzenduriko enpresen eraketan parte hartu dezakete euren udalerrri eta eskualdeetan, kapital-ekarpenak eginez. Laneratze-enpresen bidez, bazterketa-egoeran edota bazterketa-arriskuan dauden gizon eta emakumeak lan munduan txertatzen dira. Zentzu horretan, nolabaiteko itzulketa egiten zaio gizarteari, bai ekonomikoki, bai kohesioaren eta justizia sozialaren ikuspegitik. Zenbait esperientzia azpimarratu ditzakegu:

a) **Berziklatu.** Urtuellan (Bizkaia) kokatuta dago, eta hondakinak bildu, kudeatu eta birziklatzen ditu. Enpresa hau Emaus eta Kooperak sustatuta dago, eta sektore publikoko erakundeen partaidetza dauka, esaterako, **Bizkaiko Foru Aldundia eta Garbiker.**

b) **Bidebarri Enplegu Zentrua.** Oñatin (Gipuzkoa) dago, eta elikaduraren sektorean dihardu; Oñatiko Elizbarrutiko Caritasek sustatuta dago, Udalaren partaidetzarekin.

c) **Oarsotek.** Oarsoaldean (Gipuzkoa) kokatuta dago, eta industriari laguntza ematen dioten zerbitzuen sektorean dihardu. Enpresaren eraketan honakoek hartu zuten parte: **Lezoko Udala, Oarsoaldea S.A** (Garapen Agentzia) eta Rubitec.

**3. Merkatu Soziala.** Ondasun eta zerbitzu erkideak ekoitzi, banatu, finantzatu eta kontsumitzeko, eta horri buruzko prestakuntzara zuzenduriko sarea da Merkatu Soziala. Irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen du, eta enpresak nahiz ekonomia solidarioko erakundeak barne hartzen ditu, bai eta norbanako kontsumitzaileak zein kontsumitzaile kolektiboak ere. Euskadiko REAS da gure lurraldean Merkatu Soziala sustatzeaz arduratzen dena. Horretarako, azoka desberdinak antolatzen ditu, administrazio publikoen laguntzarekin, Bilbon, Donostian edota Gasteizen. Beste batzuetan, hala ere, udalak eurak dira azokak sustatu eta antolatzen dituztenak. Zenbait kasutan, sareari eta sare hori osatzen duten erakundeei lankidetzeta eta parte-hartzea eskatzen diete. Hala gertatzen da **Lasarte-Orian, Hernanin edota Tolosan** (Gipuzkoa) eta **Leioan** (Bizkaia).

**4. Tokiko garapen-eredu berrien sustapena:**

a) **Beteberri. Garapen Integralerako Agentzia. Burtzaldeako Eskualdea (Gipuzkoa).** Ekimen hau 2015. urtean sustatu zen, sei udalerriren lankidetzari esker (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil). Egitura juridiko bat sortzea eta tokiko garapena modu integralean lantzea du helburu. Beste garapen-eredu bat ere landu da, honako oinarriak izango dituen: kooperatibismo sozialean oinarritua, gizartea eraldatzeko helburuarekin; garapen ekonomikoaz gain pertsonen garapena ere kontuan izango duena; eta garapen sozialaz gain, kultur edota hizkuntza garapena ere barne hartuko dituen. Agentzia honek eskualde mailako bi programa estrategiko ditu. Programa horiek modu bateratuan garatzen dituzte bai enpresek bai erakundeek, ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik, betiere:

i. **KOOPERATZEN.** Pertsona ekintzaileei zuzenduriko zerbitzua da, eta eskualde mailan enpresak sortzea eta garapen sozial eta ekonomikoa sustatzea da bere helburua. Ikuspegi eraldatzailea duten lankidetzeta-proiektuak sustatu nahi ditu, ekonomia sozial eta solidarioaren baitan, eta honako zerbitzuak eskainiz: enpresa berriak sortzeko beharrezkoa

den informazioa; langabezian dauden pertsonentzako bekak, euren ekimena sustatzeko aukera izan dezaten. 24 ekintzailek parte hartzen dute, 19 beka sortu dira, eta 14 ideia ekintzaile aztertzen ari dira.

ii. **INNOFORO.** Tokiko eragile eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea du helburu, lanpostuak sortzen dituzten proiektuak sustatzeko eta ekonomia suspertzeko, agentziak berak proposatzen duen tokiko garapen integralaren ikuspegitik. Aurreikusitako egitasmoak ekintza hauek barne hartzen ditu, besteak beste: 1.- Eskualdean garapen bidean dauden sektore estrategikoak identifikatzea. 2.- Tokiko garapen-estrategia koherentea definitzea. 3.- Aukera berrientzako espazioak identifikatzea. 4.- Aukera eta ekimenak zehaztu eta martxan jartzea. 5.- Toki-garapenerako politika posibleak identifikatzea. Ekimen honek GFAREN laguntza jaso du. Networkinga 250 eragilez osatua dago.

b) **Toki-garapenerako eredu berria. Gipuzkoako Foru Aldundia.** Aldundia ikerketa bat sustatzen ari da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-garapenerako eredu berria sustatzeari buruzkoa. Horretarako, hau proposatzen dute: lanerako espazio bat sortzea eskualdeko teknikari eta arduradun politikoentzat; eskualdeek Aldundiko zenbait sailetan parte hartzea ahalbidetuko duen lanerako modua garatzea; Aldundiaren politikak eta eskualdeen erronkak uztartuko dituzten politikak lortzea; eskualdeen parte-hartzea eta pentsamendu estrategikoaren garapena; eskualdeek bizi duten errealitatea gertuagotik ezagutzea, beste eragile batzuen laguntzarekin (unibertsitatea, zentro teknologikoak...).

c) **Ekonomia-praktika alternatiboen mapaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia.** Mondragon Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin lankidetzaren praktika ekonomikoari buruzko azterlan egiteko, honako helburuekin: Gipuzkoako garapen ekonomikoaren metabolismoa, masen kontsumoa eta ingurumena neurtu eta ebaluatzea; Gipuzkoako Lurralde Historikoko praktika ekonomiko ez kapitalistak ulertu eta ebaluatzea; praktika ekonomiko iraunkorren efizientzia hobetu eta euren arteko harremana hobetzea, eta udalen eta Aldundiaren arteko harremana hobetzea, eredu iraunkor eta parte-hartzailea sustatzeko helburuarekin.

5. **Kanpainak.** Hainbat dira ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko sentsibilizazio-kanpainak garatzen dituzten udalak; esaterako, Oñati, Tolosa, Lasarte-Oria eta Hernani, Gipuzkoan, eta Gasteiz, Araban. Zenbait udaletan, Orozkon (Bizkaia) adibidez, ekonomia solidarioko proiektu zehatzen bati laguntza emateko proiektuak abiarazi dituzte, Esnetik kooperatibari laguntzea kasurako, edota energia berriztagarria baliatzen duen Goiener kooperatibari Berako Udalak (Nafarroa) emandako laguntza, bigarren adibide gisa.


## .....• **Erosketa publiko sozialki arduratsua**

Erosketa Publiko Arduratsua honakoetan oinarritzen da: produktu eta zerbitzuak kontratatzea, ingurumenarekin, ekitate sozialarekin edota produktu nahiz zerbitzua garatzeko etikarekin lotuta dauden irizpideak kontuan hartuta. Administrazio publikoak, horrela, ekintzaren efektu positiboak biderkatzen ditu, fondo publikoak modu eraginkorragoan erabiltzea bermatzen du, eta balio erantsia eskaini eta beste politika sozial batzuk garatzeko laguntza ematen duten zenbait enpresari parte hartzeko aukera ahalbidetzen die.

Beraz, zilegi da kontratazio publikoaren fase eta prozedura desberdinetan alde sozialak, etikoak eta/edo ingurumenekoak integratzea. Horri esker, eta prestazioaren prezioa eta kalitatea edozein izanda ere, produktu edota zerbitzuaren nahiz enpresa hornitzailearen ezaugarri sozial, etiko eta ingurumenekoak kontuan har daitezke, ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko orduan.

## A. Klausula sozialak barne hartzea

Klausula sozialak lizitazio-prozeduraren fase guztietan barne hartu daitezke (prestaketan, esleipenean eta betearazpenean), eta gizarte edota ingurumeneko gai desberdinetan aplika daitezke. Beheko taulan faseak eta irizpide-motak jaso dira. Bigarren horiei dagokienez, ez da behin betiko zerrenda; izan ere, eguneratuz doa, eta, ondorioz, geroz eta ohikoagoak dira gai hauei buruzko klausulak: gardentasun fiskala, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustapena, edota ETE eta mikro-ETE-en kontratu publikoen sustapena.



Iturria: REAS Euskadi. Kontratazio Publiko Sozialki Arduraturako gidaliburua. 2014.

Asko dira lizitazio-prozedura publikoetan klausula sozialak txertatzearen alde egin duten tokiko administrazioak; horregatik, 2014ko ekainetik 2015eko ekainera bitartekoak jaso ditugu soilik.

Epe-tarte horretan kontratazio-prozesu publikoetan txertatu diren klausula sozial gehienak gizarteratze nahiz laneratzerako irizpideak barne hartzearekin lotuta daude, eta lan-merkatuan sartzeko arazoak dituztenei laguntza ematea dute helburu.

Araba	AFA	2015eko otsaila	Laneratze eta gizarteratzea	Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak laneratzeko eta Arabako Adingabeen Kontseiluaren tutoretzapean daudenentzako ostalaritzako proiektua. Prestakuntza eskaintzen zaie, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko Ajuria eta Zadorrako egoitzetan dauden kafetegien kudeaketaren bidez. 2015eko otsaila
	Vitoria-Gasteiz	2015eko otsaila		2015eko uda sasoian Mendizorrotza kirolguneko instalazioen garbiketa, laneratzeko zailtasunak dituzten taldeak gizarteratzeko.
		2015eko martxoa		2015eko uda sasoian Mendizorrotzako kirolgunean eta Gamarrako parkean kontrol integraleko zerbitzua kontratatzeko lizitazioa, lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten taldeak gizarteratzeko.

Bizkaia	Lea-Artibaiko Mankomunitatea	2014ko ekaina	Laneratzea eta gizarteratzea	Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan bideak eta natur espazioak garbitu eta mantentzeko adjudikazio-irizpideen artean bazterketa-egoeran edota bazterketa-arriskuan dauden pertsonen kontratazioa txertatzea.
	Muskiz	2015eko apirila		Zelaia Ostalaritza Eskolako ustiapenaren emakida, lan munduan sartzeko arazoak dituzten pertsonak enplegatzeko Tokiko Gizarteratze eta Garapen proiektu gisa. Adjudikazio-irizpide moduan ezarri da.

Gipuzkoa	Donostia- San Sebastián	2014ko urria	Laneratzea eta gizarteratzea	Udal Zentroetako berokuntzarako C gasolioa hornitzeko kontratua, irizpide sozialekin; lehenetasuna emango zaie %33ko ezintasuna edo handiagoa duten langileak dituzten enpresei eta gizarteratzearen arloan dihardutenei.
		2014ko abendua	Ingurumena	Erakunde autonomoari (Musika eta dantza eskola) garraio, muntaketa eta ekitaldietarako laguntza zerbitzua emateko kontratua, irizpide sozialak eta ingurumenaren iraunkortasunari buruzkoak barne hartzen dituena.
	Ibarra	2015eko martxoa	Lan-baldintza duinak	2015eko uda sasoirako antolaturiko udaleku irekien antolaketa eta kudeaketarako adjudikazio-irizpide moduan zera barne hartzea: zerbitzu horretan jardungo duten langileei Gipuzkoako esku-hartze sozialari buruzko hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaiela
	GFA	2015eko maiatza	Aukera-berdintasuna	Adjudikazio-irizpideen artean gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari buruzko klausula sozialak barne hartzea urritasuna baloratzeko beharrezkoak diren mediku-irizpen psikologikoak egiteko zerbitzua kontratatzean, eta mendekotasuna baloratzeko eskaera egin duten pertsonen buruzko informazioa lortzean.

Epe-tarte horretan, alde horietako bat barne hartzea izan da ohikoena; baina, kontratazio-prozesu batzuetan, klausula sozial bat baino gehiago aurki ditzakegu, arlo desberdinetakoak.

## Gipuzkoa

**Eskoriatzako Udala:** honakoekin lotutako klausula sozialak barne hartu ditu: laneratzea eta gizarteratzea, lan-baldintza duinak, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eta ingurumen-irizpideak udalerriko berdegune, parke, lorategi eta zuhaitziak artatu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua ematerakoan (nahitaezko zerbitzuak nahiz aukerakoak). 2014ko uztaila.

**Arrasateko Udala:** laneratzearekin eta gizarteratzearekin nahiz bidezko merkataritzarekin lotutako klausulak txertatzea Arrasateko Udalaren instalazio eta bulegoetan dauden edari hotz zein beroak eta jakiak saltzen dituzten makinak ustiatzeko zerbitzu-kontratuan, bidezko merkataritzako elikagaiak barne hartuz eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen

kontratazioa sustatuz. Klausula horiek biak adjudikazio-irizpide moduan definitu dira. 2015eko apirila.

## Bizkaia

**Barrikako Udala:** ingurumenari eta laneratzeari buruzko klausulak barne hartu dira hiriko hondakin solidoak bildu eta tratamenduak egiteko zentro baimenduetara garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko. 2015eko otsaila.

**Sopelako Udala:** ingurumenari eta laneratzeari buruzko klausulak barne hartu dira, adjudikazio-irizpide gisa, Sopelako hiri-hondakinen aurre-bilketa, bilketa eta garraio iraunkorrerako eta frakzio organikoa (5. edukiontzia) jasotzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko, bai eta bazterketa-arriskuan daudenen laneratzea sustatzeko ere. 2015eko otsaila.

## B. Erreserbadun kontratua eta merkatu-erreserba

Erreserbadun kontratua lege-figura espezifiko bat da; horren arabera, kontratu publikoak lizitatzean enpresa-ekimen jakin batzuk soilik parte hartu dezakete, eta, beraz, esleipendunak izateko hautagaiak mugatuak dira. Kasu honetan, Enplegu Zentro Bereziez<sup>2</sup> --CEE-, 44/2007 Legean araututako Laneratze-enpresez<sup>3</sup> -EI- edo Babestutako Enplegu-programez ari gara, horietan enplegua eman zaien pertsonen %30 urritasunen bat duten langileak edota gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak direnean, betiere.

Merkatu-erreserba, berez, ez da definizio juridikoa. Erreserbadun kontratua modu estrategiko, kuantifikatu eta antolatuan erabiltzen denean aipatzen den terminoa da. Hau da, administrazio publikoak erabakitzen duenean kontratu publikoak adjudikatzeko aurrekontu osoaren portzentaje bat erreserbadun kontratu bidez esleituko dela. Modu horretara, Laneratze-enpresa eta Enplegu Zentro Bereziarentzako merkatu berezia sortzen da, babestua alegia, horien sostengua nahiz hazkundea ahalbidetuz. Kontratu publikoei buruzko araudiak ezartzen duenez, sektore publikoko erakundeek egiten dituzten kontratu guztien gutxienezko bat Laneratze-enpresei eta Enplegu Zentro Bereziei erreserbatuta egon behar da (3/2011 Errege Dekretuaren 5. Xedapen Gehigarria, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena. Lege hori irailaren 9ko 31/2015 Legearen bidez aldatu zen; horren bidez, auto-enpleguari buruzko araudia aldatu eta eguneratu, eta lan autonomia eta ekonomia sozialekoa sustatu nahiz indartzeko neurriak hartu ziren).

2015eko azarotik 2016ko uztailera bitartean, erreserbadun 13 kontratu identifikatu ditugu guztira (LE eta/edo EZB).

---

2 Enplegu Zentro Bereziak (EZB), ondasunak ekoitzi edota zerbitzuak ematen dituzten enpresak izateaz gain (irabazi asmorik gabekoak izan daitezke, ala ez), bestelako helburu bat dute, desgaitasunen bat dutn pertsonak lan munduan txertatzea, alegia. Horretarako, langileen araberrako doikuntza-zerbitzuak baliatzen dituzte, horien harrema sozialaren egokitzapena handiagoa eta hobeia izan dadin.

3 Laneratze-enpresak (LE) desabantaila sozialean edota bazterketa-egoeran daudenek enplegu normalizatuak eskuratzea ahalbidetzen duten enpresak dira. Horretarako, dagokien laguntza eta prestakuntza ematen zaie, irabazi asmorik gabeko egituradun merkataritzako enpresaren batean lanpostuak eskainiz.

Kontratua	Data	Erakundea	Erreserba
Ostalaritzako ibilbidean arlo soziala txertatzera bideraturiko 3 jardueraren garapena	2015/11/16	Gasteizko Udala. Politika Sozialak	LE soilik
Orbea Kiroldegiaren garbiketa	2015/11/26	Eibarko Udalaren Kirol Patronatua	EZB soilik
Iradier Arena aparkalekuko koordinazio, kontrol eta kobrantza zerbitzua	2015/12/30	Transportes Urbanos de Vitoria-Gasteiz, SA	EZB soilik
DSBE eta PCV espedienteen tratamendua eta kudeaketa, desgaitasunen bat duten pertsonak lan-merkatuan integratzea sustatzen duena	2016/03/14	Lanbide	EZB soilik
Donostiako Sustapen Zentroetako Atezain Zerbitzua	2016/02/09	Fomento de San Sebastián SA	EZB soilik
Bolumen handiko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu-ematea	2016/04/15	Udaltalde 21 Nerbioi-lbaizabal, S.L.	EZB eta LE
Laguntzadun garbiketa-ikastaroa 2016-2017	2016/04/18	Gasteizko Udala. Politika Sozialak	LE soilik
Donostiako Udalaren Kirol Patronatuaren zuzeneko kudeaketa, ingurumen-irizpideekin	2016/04/21	Donostiako Udalaren Kirol Patronatua	EZB soilik
Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa zentralerako eraikinetan edari hotz zein beroak eta jakiak saltzen dituzten makinen instalazioa, LE eta EZBentzako erreserba partzialarekin	2016/05/03	Eusko Jaurlaritza. Ogasuna eta Finantzak	EZB eta LE
Erreforma ikastaroa, laguntzaileekin 2016-2017	2016/05/27	Gasteizko Udala. Politika Sozialak	LE soilik
Berriz erabiltzeko moduko hiri-hondakin solidoak prebenitu eta minimizatzeko arloan enplegua sortzeko zerbitzuak	2016/07/08	Gasteizko Udala. Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra	LE soilik
Olarizuko Lorategi Botanikoaren inguruko paisaia egokitzea eta baratzezaintza.	2016/07/29	Gasteizko Udala. Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra	LE soilik
Paisaiaren egokitzapena eta baratzezaintza Gasteizko bide berdeen inguruan	2016/07/29	Gasteizko Udala. Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra	LE soilik

### C. Eredu integralak: Erabakiak, Jarraibideak, Ordenantzak eta Zirkularrak

Jarraibide, Erabaki, Ordenantza edo Zirkular lotesleak egitea, klausula sozialak kontratu publiko guztietan nahitaez txertatu daitezten.

Arraian, REAS Euskadik Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuaren alorrean garatu dituen erabaki, jarraibide, ordenantza eta zirkularrak aipatuko ditugu.

---

**1/2015 Foru Legea, urtarrilaren 22koa, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, hau da, administrazioaren baldintza pleguetan klausula sozialak txertatzeari buruzkoa, aldatzen duena. Nafarroako Gobernuaren Presidentetza.**

---

Nafarroako sektore publikoan kontratistak diren enpresetan lan egiten duten Foru Komunitateko langileei zuzenean eragiten dieten arazoetako bi konpontzeko mekanismoak txertatzeko beharrezkoa aipatzen du. Horiek dira, alde batetik, "aplikatu daitezkeen lan-baldintzei buruzko segurtasun eza; hori bideratzeko gutxieneko baldintza gisa finkatzen dira –nahikoak eta bidezkoak direla uste izanik– enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru txikieneko azken lan-hitzarmen sektorialekoak. Bestetik, enpleguaren ezegonkortasuna, izan ere, langile askoren itxaropen laborala lotuta dago enplegatzaileak sinatu duen kontratu publikoaren iraupenarekin; horri aurre egiteko, exijentzia bat sartzen da, enplegua mantentzea, alegia, enpresa kontratista aldatu arren".

Aipatutako klausula sozialak urratu direla egiaztatuz gero, Administrazioak kontratua eteteko aukera izango du. Klausula horiek nahitaez sartu beharko dira Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoa osatzen duten entitateen kontratazio organoek egiten dituzten kontratazio-prozesuetan.

---

**11/2014 Foru Araua, urriaren 29koa, eresketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeari buruzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia.**

---

Foru Arau honek xede du hainbat jarraibide ezartzea izaera sozialeko eta ingurumeneko klausulak nahiz beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeetako kontratazio organoek bideratzen dituzten kontratazio prozeduren fase desberdinetan.

Kontratazio prozeduretan txertatuko diren klausulek helburu hauek izango dituzte: lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, langabeziari aurre egitea, arrisku edo gizarte-baztertako sozialean dauden pertsonak gizartean eta lan-merkatuan sar daitezen erraztea, langileen oinarritzko

eskubideak errespetatzen direla bermatzea, enpleguaren kalitatea sustatzea, segurtasuna eta lan osasuna sustatzea, ingurumena babestea, inguruneari kalte eragiten ez dioten ekoizpen sistemak sustatzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, eta emakume eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa bultzatzea.

II. kapituluak gaitasun eta kaudimen baldintzak jasotzen ditu, modu honetara sailkatuta: 1. atalean, kontratuen erreserba; 2. atalean, desgaitasuna duten pertsonen gordetako lanpostuen erreserba-kuota betetzea; eta 3. atalean, kaudimena hizkuntza arloan. III. kapitulua klausula sozialak eta ingurumenekoak esleipen fasean txertatzeari buruzkoa da; bertan, aipatzekoa da 2. atala, klausulak txertatzeko esparru materialak definitzen dituena, alegia. IV. kapituluak klausula sozialak, ingurumenekoak edo beste politika publikoei buruzkoak gauzatze fasean txertatzea garatzen du. 1. eta 2. ataletan gauzatze-baldintzak aipatzen dira, hizkuntza arloan eta berdintasun arloan, hurrenez hurren.



---

**5/2015 Foru Araua,  
otsailaren 11koa,  
erosketa publiko sozialki  
arduratsuari buruzko  
kontratu klausulak  
foru sektore publikoko  
kontratazioan txertatzeari  
buruzkoa. Arabako Foru  
Aldundia.**

---

Foru Arau honek xede du hainbat jarraibide ezartzea izaera sozialeko eta ingurumeneko klausulak nahiz beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeetako kontratazio organoek bideratzen dituzten kontratazio prozeduren fase desberdinetan. Kontratazio prozeduretan txertatuko diren klausulek helburu hauek izango dituzte: lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, langabeziari aurre egitea, arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak gizartean eta lan-merkatuan sar daitezen erraztea, langileen oinarrizko eskubideak errespetatzen direla bermatzea, enpleguaren kalitatea sustatzea, segurtasuna eta lan osasuna

sustatzea, ingurumena babestea, inguruneari kalterik egiten ez dioten ekoizpen-sistemak sustatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta emakume eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa bultzatzea.

**I. kapituluak** gaitasun eta kaudimen baldintzak jasotzen ditu, modu honetara sailkatuta: 1. atalean, kontratuen erreserba; 2. atalean, desgaitasuna duten pertsonen gordetako lanpostuen erreserba-kuota betetzea; eta 3. atalean, kaudimena hizkuntza arloan. **II. kapituluan**, esleipen fasean klausula sozialak eta ingurumenekoak txertatzeko modua definitzen da, eta **III. kapituluan**, berriz, betearazpen fasean klausula sozialak, ingurumenekoak edota bestelako politikei buruzkoak txertatzeko modua.

---

**UPV/EHUren  
kontratazioetan gizarte,  
etika eta ingurumen  
irizpideak erabiltzeko  
errektorearen  
zirkularra.**

---

Zirkular honen bidez, UPV/EHUK kontratazioen adjudikazioetan eta gauzatzeetan etika, gizarte eta ingurumen irizpideak erabiltzeko hartu duen konpromisoa adierazten du. Hori horrela, kontratu publikoetan honako irizpide sozialak txertatzea proposatzen du: gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eta/edo desgaitasunen bat dutenen gizareratzearekin eta lan-munduratzerekin zerikusia duten gizarte-irizpideak sartzeari, enpleguaren kalitatea sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren alde egitea, laneko segurtasuna eta osasuna ahalbidetzea, eta ingurumen irizpideak erabiltzea.

Kontratazioaren lizitazio-prozeduraren fase desberdinetan gizarte eta ingurumen alderdiak barne hartzeko aukerak segurtasun juridiko osoz gauzatzeko helburuarekin egin da zirkular hau.

**I. kapitulua** erreserbatutako kontratuei buruzkoa da, eta, bertan jasotzen denez, UPV/EHUK prestakuntza eta enplegura zuzenduriko programak garatzen dituzten erakundeei erreserbatutako die zenbait kontraturen esleipen-prozeduran parte hartzeko aukera. **II. kapituluan**, adjudikazio-irizpideetan gizarte eta ingurumeneko klausulak nola sartu azaltzen da; horri dagokionez, hau adierazten du: "proposamenak baloratzeko, kontuan hartu behar dira kontratuaren helburuekiko lotura zuzena duten irizpideak, esaterako, gizarte-eskakizunak edo ingurumen ezaugarriak betetzeari lotutako ezaugarriak, kontratuari aplikatuta kontratazio organoarentzako eskaintza onuragarriagoa osatuko dutenak; betiere, kapitulu honetan ezarritakoarekin bat etorritik". **III. kapitulua** kontratua gauzatzeko baldintza bereziak sartzeari buruzkoa da, eta bertan adierazten denez: "gizarte eta ingurumen arloko gauzatze baldintza bereziak gehitu ahal izango zaizkio kontratuari". Baldintzok betebeharrak izango dira enpresa adjudikaziodunarentzat, kontratua gauzatzeko aldian.

---

**Kontratazioan irizpide sozialak, ingurumenekoak, etikoak, lanekoak, hizkuntzakoak eta berdintasunekoak txertatzeko jarraibideak (2014ko otsailaren 5ean egindako ohiko osoko bilkura, 2/14. zenbakidun Akta). Lemoako Udala (Bizkaia).**

---

Lemoako Udalak aho batez onartu ditu kontratazioetan irizpide sozialak, ingurumenekoak, etikoak, lanekoak, hizkuntzakoak eta berdintasunekoak txertatzeko jarraibideak. Irizpide horiek Udalak egiten dituen kontratazio-espeditante guztietan aplikatuko dira, bai obren alorrean, bai zerbitzuetan. Jarraibide honetan xedatutakoa nahitaez bete beharko da administrazio-baldintza berezien pleguak egiterakoan, bai eta kontratuen baldintza teknikoak prestatzerakoan ere. Kontratua prestatzeko fasean, esleipen-fasean eta betearazpen-fasean klausula sozialak barne hartzeko eman behar diren urratsak ezartzeaz gain, jarraibideak dioenez, udal sailek zenbait kontratu erreserbatuko dituzte, urtean zehar, erregistratuta dauden laneratze-enpresentzat, urritasunen bat duten pertsonen enplegu-zentro berezientzat, edota kontratu horiek babestutako enplegu-programen markoan gauzatzeko.

---

**Gasteizko Udalaren kontratazioetan klausula sozialak txertatzeko jarraibideak. Gobernu Batzarrak 2010/07/18an onartua.**

---

Jarraibide hau Udalean erantzukizunen bat duten pertsonen zuzenduta dago, gobernu mailakoa, zuzendaritzakoa edota teknikoa, bai eta Udalaren kontratazio-prozedurak sustatzen eta/edo horietan esku-hartzen dutenei ere. Era berean, urteko erreserbadun kontratuen helburua %3an ezarri da, ekitaldiko kontratazio-kopuru osoa oinarri hartuta. Erreserba-portzentaje hori Udal osoari dagokiona da, eta ez sail bakoitzari dagokiona. Erreserba hori lehenespenez aplikatuko zaie zenbait kontratuari; hau da, dituzten ezaugarriak direla medio kontratuaren xedeari ahalik eta pertsona-kopuru gehien atxikitzea ahalbidetzen dutenei, edota

laguntza eta jarraipen maila handiagoa dutenei.

Jarraibide honek exekuzio-baldintza bereziak barne hartzen ditu, arlo sozialekoak, alegia; bereziki, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen enplegua sustatzera, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerraraztera, eta langabeziari aurre egitera zuzendurikoak. Betearazteko baldintza berezi bat ezarri da: lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzea.

---

**D. SPKLrekin lotutako bestelako ekimenak: Iruñeko Udalaren TREBATU programa.**

---

Iruñeko Udalak 2015eko azken lauhilekoan abian jarritako ekimena da, eta toki-administrazioetako kontratazio publikoetan enpresa txikiak eta ekonomia sozial solidarioko erakundeak sustatzea du helburu. Plan honen baitan diseinatutako neurriak foru araudien marko zabala garatzera zuzenduta daude (6/2006 Foru Legea, aurreko atalean aipatu duguna), bai eta Europar Batasuneko zuzentarau berriak garatzera ere (Europako Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren 2014/24/UE Zuzentaraua).

Alde batetik, kontratazioen esparruan, pleguak bateratzen ari dira, sinpleagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten. Era berean, klausula sozialak eta ingurumenekoak txertatu, eta europar araudien marko berriak eskaintzen dituen aukerak aztertzen dihardute, enpresa txikiagoen sarea bultzatzeko. Lan-egitasmoaren ardatzetako bat tamaina txikiko enpresei prestakuntza eta gaitasuna ematea da. Helburu horrekin, Udalaren Aholkularitza Juridikoak lanerako tailer praktikoak eman ditu 2015eko bukaeran, eta hala jarraituko du 2016ko lehendabiziko hilabeteetan ere. Alderik praktikoena

simulazioen bidez egingo da, non erakunde parte-hartzaileek euren eskaintzak aurkeztu, eta Udalaren zerbitzu juridikoen eskutik prozedurako pauso guztiak ezagutu ahalko dituzten.

Prestakuntza-tailer horietatik abiatuta, enpresa txikiek eta ekonomia sozialeko erakundeek honakoen berri izango dute: administrazioarekin kontratatzeke dauden bide desberdinak, eskaintzak aurkezteko modua, ohiko akatsak, indarreko araudia, kaudimena edota esleipenerako irizpideak, bai eta tokiko kontratazio publikoaren alorrean erabiltzen diren plegu desberdinak ere.

# 1. Eranskina

## Ekonomia Sozial eta Solidario baterako tokiko Politika Publikoak

**REAS Euskadi** – Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea – lurraldeko garapen ekonomiko alternatiboak sustatzen edo sendotzen dituzten izaera lokaleko politika publikoen mapa bat egiten gabiltza. Udalerriko eragile ekonomiko eta sozialen artean praktika sozialki arduratsuen sustapenetik, tokiko garapen ekonomikoaren agendan ekonomia sozial eta solidarioaren barnerapenera, jakinik lokala dena eskala egokia duela ekonomia eta gizartearen arteko gerturatze bat lortu ahal izateko.

Jarraian, ekonomia solidarioko tokiko politika publikoen zerrenda bat aurkezten dugu, zure udalak sustatutako politiketan **X bat** jartzeko helburuarekin. Bigarren atalean, aukeratutako politikei buruzko deskribapen laburra eskatzen dizugu.

Eskerrik asko

### 1. Zure tokiko entitateak sustatutako politika publikoetan X bat jarri

Udal-kudeaketa politikak	
Aurrekontu partizipatiboak	
Erosketa Publiko Sozialki Arduratsua (gizarte-klausulak, merkatu erreserbak...)	
Banka Etikako kontu korrante bat izan	
Banka Etikako, ekonomia solidarioko energia berriztagarrien kooperatibetako, etb.-eko bazkide izatea	
Gizarteratze eta laneratzeko enpresa baten eraketan parte hartu	
Kontsumo kolaboratiboa (kontsumo taldeak...)	
Lurraren kudeaketa jasangarria eta ez espekulatzaila (balio agroekologikoa duten lurren babes, etxebizitza kooperatibei lurraren lagapena...)	
Autogestionatutako jarduerak garatzeko espazio publikoen lagapena edo udal espazioen kogestioa izaera eraldatzailea duten gizarte-mugimendu, auzoko elkarte, etab.-ekin	
Udal zerbitzu publikoen kudeaketa ikuspegi eraldatzaile batetik	
Beste bat. Zein? .....	
.....	
.....	
.....	

Tokiko garapen ekonomiko alternatiboa	
Merkatu sozialen sustapena (ekonomia solidarioaren azokak, bertoko merkatuak, ohiko merkatuen berreskuratzea, truke merkatuak...)	
Finantzazio etiko eta alternatiboko zirkuituak, finantza etikoekin garatutako proiektu zehatzak, tokiko garapeneko proiektuen finantzazioa, finantzazio etikoko tresnen bitartez	
Ekonomia sozial eta solidarioko ekintzaitza proiektuei laguntza (lan-guneen lagapena, aholkularitza, laguntza eta sustapen zentroak ...)	
Denbora bankuen sorkuntza eta laguntza	
Moneta sozialen sorkuntza eta laguntza	
Ekonomia sozial eta solidarioari buruzko sustapen eta sentsibilizazio kanpainak	
Landa-garapeneko proiektuak jendez hutsik dauden eremuetan	
Beste bat. Zein? .....	
.....	
.....	
.....	

Lurra eta ingurumenaren zainketa	
Energia-erabileran kontsumoaren murrizketa eta eraginkortasuna sustatu	
Energia berriztagarriko kooperatibekin elektrizitate-horniketaren kontratazioa	
Hondakinen kudeaketaren kontratazioan ekonomia sozial eta solidarioaren erakundeei lehentasuna eman	
3R-en (murriztu, berrerabili, birziklatu) esparruan lan egiten duten ekonomia sozial eta solidarioaren erakundeentzako laguntza-politikak	
3R-en (murriztu, berrerabili, birziklatu) inguruan hedapen edo sustapen politikak	
Ortuentzako eta produkzioz gain hezigarri diren laborantza-esplotazioentzako lur publikoak bideratu, mantendu, lagundu eta utzi	
Nekazariarentzako eta ekonomia sozial eta solidarioarentzako lur fondoak	
Ekologiko, tokiko edo ekonomia sozial eta solidarioaren produktuez hornitutako jantokiak	
Ondasunaren erabilpenari, jabetzari baino garrantzia handiagoa ematen dioten, ingurumenari on egiten dioten eta lurra zaintzen duten praktika kolaboratiboen sustapena (sukalde komunitarioak, auto kolektiboak).	
Beste bat. Zein? .....	
.....	
.....	
.....	

## 2. Aipatutako proiektuei buruz informazio gehiago eman

(Estimutzen dituzun politika publiko guztien deskribapena sartu)

Zkia°	
Esparrua: .....	
Izan burua: .....	
Deskribapen laburra descripción .....	
.....	
.....	
.....	
Webgunea edon kontaktua .....	

Zkia°	
Esparrua: .....	
Izan burua: .....	
Deskribapen laburra descripción .....	
.....	
.....	
.....	
Webgunea edon kontaktua .....	

Zkia°	
Esparrua: .....	
Izan burua: .....	
Deskribapen laburra descripción .....	
.....	
.....	
.....	
Webgunea edon kontaktua .....	